


ORIOKO
Biziberritze Plana





Kultur Atelier
— komunikazio agentzia —



iragest
cogerencia

Aurkibidea

AURREKARIAK	4
ERRONKA	8
PROIEKTUAREN HELBURUAK ETA METODOLOGIA	10
MAKRO INGURUNEAREN ANALISIA	14
MIKRO INGURUNEAREN ANALISIA	20
ORIOREN ESKAINTZA	22
1) ORIO HERRI BEZELA	22
2) AZPIEGITURA	28
3) EGUNGO BALIABIDE TURISTIKOAK	34
4) EGUNGO ZERBITZU TURISTIKOAK	42
5) TURISTEN BILAKETEN EMAITZAK	46
ORIOREN ESKARI POTENTZIALA	50
1) TURISMOA ZENBAKITAN	52
2) TURISTEN JARRERA ETA PORTAERA	55
3) MERKATU POTENTZIALA	60
PARTE-HARTZEA ETA IKERKETA	66
1) ELKARRIZKETATUTAKO PERTSONA ETA ERAGILEAK	68
BIZIBERRITZE PLANA	88
1) DESAFIO NAGUSIA	90
2) MARKA ETA LELOA	92
3) EKINTZA PLANA	96
INFORMAZIO ITURRIAK	112
ERANSKINAK	114

Aurrekariak



Orioko Turismo Plan Estrategikoaren proiektua abian jarri zenean, COVID-19ak sortutako krisi egoerarik ez zegoen. Orain, ordea, bete betean harrapatu du krisialdiak mundua eta, honek, turismoari zuzen zuzenean eragingo dio epe motzean behintzat.


Egoera honek, bidaiatzeko modua eta turisten jarrera aldatuko du epe motzean eta turismo arloko enpresek ezinbestekoa izango dute errealitate berri hauetara moldatzea, horretara bideratutako ekintza plan estrategiko indartsuekin.

Adituek diotenez, koronabirusak epe motzean sortutako turismoa ulertzeko, hurrengo ardatzak izango dira gakoak:

- **Helmuga turistikoaren birdefinizioa.** Helmuga turistikoaren etorkizuneko posizionamendua eta nolako turismoa sustatu nahi den definitu behar da.

- **Turismo iraunkorra.** Turismoa birasmatu eta turismo iraunkorraren aldeko apustua egin.
- **Helmuga turistikoaren balio berriak txertatzea.** *Briefing*etan segurtasuna eta garbitasuna bezalako balioei garrantzia emateko unea da.
- **Slow turismoa.** Helmuga turistikoaren baliabide berezi eta "autentikoenak" balioan jarri eta *slow* turismo batengatik apustu egiteko garaia da.
- **Tokiko turismoa.** Tokiko turismoa hazi egingo da, bisitatzen ditugun helmuga turistikoak dagoeneko ezagutzen ditugun inguruko udalerriak izango dira.
- **Xede taldeen pentsamolde berriak.** Bidaiariek konfiantza eta segurtasuna bilatuko dute.


Osasunaren Mundu Erakundeak (OME) argitaraturiko aurreikuspenak oso pozgarriak ez diren arren, 2020ko martxoaren 27an, Deloitte aholkularitza enpresak argitaratutako txostenaren arabera, turismoaren eta batez ere barne turismoaren susperraldia, 2020ko uztailan hasiko da.



Oriok aukera ezinhobea du krisi honek ireki duen turismoaren leihoan bikain posizionatzeko. Izan ere, erabat betetzen ditu adituek epe motzean aurreikusitako tendentziak.

Racional de recuperación por sectores

Análisis sectorial (%Var. sobre Año Anterior)



Irudia 1: Covid-19 krisialdiaren ondorengo ekonomiaren erreberazioa (Deloitte, "Impacto y escenarios de recuperación en consumo y distribución")

Posizionamendu berri honek, luzaroan Orioren marka sustatu eta indartzeko leihoa zabaltzen digu.

Turismo alorreko adituen hitzetan, susperraldia pixkana gauzatuko da eta zailtasun ezberdinekin egingo du topo. Egoera honetan, barne turismoak gora egingo duela aurreikusten da. Aldi berean, birdefinizio horretan bertako kontsumoa sustatzeko neurriak diseinatzen ari dira orain (aurrez beste eremuetan ongi funtzionatu duten bonoak, etab.)

Epe motzean, barne turismoaren indartzea aurreikusten duten aditua gehiengoak dira. Bidai handietaz ahaztu eta inguruko tokiak bisitatzeko hartuko du indarra. Neurritz gaineko turismoa gutxituko da.

Orio bisitatu duten pertsonen jatorria kontuan hartuta, aurreikusten den jokaera honek eragin positiboa izango luke.

Plan honen helburua udalerrriak etorkizunean izan beharko lukeenaren inguruko ikuspegi partekatua lortzea eta hori gauzatu ahal izateko proiektuak zehaztea da.

Adituen iritziz, epe motzean, segurtasuna transmititzea ezinbesteko faktore bat izango da turismoa erakartzeko.

Oriok bere eskaintza prest eduki behar du, egoera eta behar berriei erantzuna emanaz eta estrukturalak bilakatuko diren aldaketei egokituta.

Krisialdi honek, hirugarren sektoreari gogor eragin dio eta bertan dauden negozioen indartzea izango da helburu nagusia, betiere epe luzera begiratuko duen plan estrategiko baten barruan noski.

Testuinguru honetan, eta kontuan hartuta historikoki Orioko ekonomiaren oinarria izan den arrantzak azken urte hauetan galdutako pisua, industriaren beharakarekin batera, turismoa bertako ekonomia eta beste jarduera ekonomikoak indartzea ahalbidetu dezakeen aukera bezala aurreikusten da. Hala ere, turismoak dituen aukerei probetxua ateratzeko, ezinbestekoa da jarduera turistikoa gidatzeaz gain, berta-

koen beharrak asetu eta ongizatea bermatzen duen Turismo Plan Estrategiko bat garatzea.

Plan honen helburua udalerrriak etorkizunean izan beharko lukeenaren inguruko ikuspegi partekatua lortzea eta hori gauzatu ahal izateko proiektuak zehaztea da. Plan honek finkatuko du egungo posiziotik abiatu eta Oriok turismo mahaian etorkizunean bete nahi duen tokia lortu ahal izateko beharrezko ibilbide orria.



Erronka



ERRONKA NAGUSIA

Turismo eta ekonomia eredu jasangarri eta berritzaile bat lideratuz, merkaturan posizionatu behar da Orio; herriko ekonomia suspertuko duen eta izaera bizi integratzaile eta euskalduna merkaturan balioan jarritz.

Hori horrela, Turismo Plan Estrategikoak Orioren berezitasunak, izaera, kultura eta bertako bizimodua zaindu behar ditu, turismo jasangarri eta iraunkorraren premisak kon-tuan hartuta.

Zer lortu nahi da plan honen bitartez?

- > Egoerak eraginda, epe motzera eta modu efiziente batean, hau da, gaur egun Oriok dituen baliabideak ahalik eta ondoen aprobetxatuz, herriaren susper-raldi ekonomikoari lagungarri egingo zaion ekintza plana zehaztea.
- > Orioko lau urterako turismo plan estrategikoaren ga-rapena, bere diagnostiko eta ekintza plana zehatzare-kin.
- > Plan honek turismo alorreko ekintza plana eta au-rrera eraman beharreko jardueraz gain, herritarren beharrei erantzun eta hauen ongizatea bermatu-ko du. Ondorioz, ezinbestekoa da herriko eragile, erreferentziatzko pertsonak eta herritarrek plana-ren diseinuan parte hartzea. Herritarrek plana bere sentitu behar dute, harro egon eta harrotasun hori transmititu.
- > Turismo eta ekonomia eredu jasangarri eta berritzaile bat lideratuz, merkaturan posizionatu behar da Orio; herriko ekonomia suspertuko duen eta izaera bizi inte-gratzaile eta euskalduna merkaturan balioan jarritz.



Proiektuaren helburuak eta metodologia



Turismo Plan Estrategiko honek bertako jarduera ekonomikoak indartzea ahalbidetuko du. COVID-19ak eragindako krisi egoera hau kontuan hartuta beharrezkoa da gidalerro batzuk zehaztea eta, hori, plan honek bermatuko du. Turismo arloan lehiakortasuna bermatzeko ezinbestekoa da jarduera turistikoa antolatzen duen Turismo Plan Estrategiko bat garatzea.

Orain arte Oriok ez du Turismo Plan Estrategikorik izan, lehiakortasuna bermatzeko eta turismoak dituen aukerei probetxua ateratzeko ezinbestekoa den plana. Turismo Plan Estrategiko honek izaera integratzailea izan behar du, herritarren beharrak asetu eta hauen ongizatea bermatu behar du bisitariak erakarriz turismo jasangarria baten ikuspegitik.



Plan honek izaera integratzailea izan behar du, herritarren beharrak asetu eta hauen ongizatea bermatu behar du bisitariak erakarriz turismo jasangarri baten ikuspegitik.



Basquetourrek, Turismoaren Euskal Agentziak, Euskadiko Turismoaren Kode Etikoak argitaratu zituen 2019ko abenduan. Abiapuntutzat errespetua eta ulermena hartuz, kode hauen bitartez funtsezko printzipio batzuk ezartzen dira Euskal Autonomia Erkidegoko eragile turistikoko guztiek erantzukizuna eta jasangarritasuna integratu dezaten beren eguneroko jardunean. Txosten honetan turisten eskubideak eta garapen turistikoko eragileen betebeharrak identifikatzeaz gain, hainbat printzipio definitzen dira, turismo iraunkorraren lehiakortasuna bermatzeko ezinbestekoak direnak:

- Turistak ulertzen eta errespetatzen lagundu
- Berdintasuna, gizarteratzea eta aniztasunarekiko tolerantzia


- Jasangarritasuna
- Bertako tradizioaren eta kulturen sustapena
- Gizateriaren kultur ondarea babestea
- Bikaintasuna eta profesionaltasuna
- Pertsonen eskubideak errespetatu
- Tratu egokia eman sektoreko langile eta enpresariei

Marko autonomo edo estatalak kontrastatzea beharrezkoa da, baina plan honek nazioarteko tendentziak eta herri txikien adibideak aztertuko ditu.



Ez dago zalantzarik aukera eta une egokia dela turismo plana eratzeko, alde batetik, krisialdi egoera honetan gehien sufritzen ari den hirugarren sektoreari lagungarri izango zaiolako. Bestetik, Urola Kostako gainerako herriek garatuta dute (Zarautz eta Zumaia) eta (Getaria) garatzeko bidean dauden turismo plarekin bat egin daitekeelako.

Orioko Turismo Plan Estrategikoa garatzeko ondorengo metodologia erabiliko da:





**INGURUMENAREN
ANALISIA:**

- 1) Mikro-ingurunea
- 2) Makro-ingurunea

**GAUR EGUNGO
EGOERAREN
DIAGNOSTIKOA ETA
ETORKIZUNeko
ERRONKEN DEFINIZIOA**

**EKINTZA
PLANAREN
HEDAPENA**



Makro- -ingurunearen analisi



Ekonomia global indartsua, garapen bidean eta hazten dauden ekonomietako klase ertainaren hazkundea, aurrerapen teknikoak, negozio eredu berriak, bidaiatzeko kostu merkeak eta bisa erregimenen sinplifikazioaren ondorioz, nazioarteko sarrerak %5 hazi ziren 2018 urtean. Horrela, 2020 urterako aurreikusitako 1.400 milioi nazioarteko turisten sarrerak bi urte lehenago lortu ziren.

Aldi berean, turismoaren esportazioek 1,7 bilioi amerikar dolarretako irabaziak sortu zituen 2018 urtean. Hau kontuan izanik, turismoa hazkunde ekonomikoaren eta garapenaren eragileetako bat da, kalitatezko enplegua sortuz eta berrikuntza zein ekintzailetzarako katalizatzaile gisa jardunez.


Kontuan izan behar da Turismo Plan Estrategikoaren garapena COVID-19 krisialdia baino lehen dituela bere lehen hastapenak. Martxoaren 14an espainiar estatuan emergentzia egoera deklaratu zen eta orduz geroztik pandemiari aurre egiteko hartu diren erabakiek ekonomian eragin negatiboa izan dute. Osasun arloko krisi global baten aurrean gaude, mundu osoko ekonomian eragingo duena.

Aurreikuspenek diote epe motzera barne turismoak gora egingo duela. Turismo Plan Estrategiko honek datozen urteetako ibilbide lerro bat izatea ahalbidetuko digu eta turismoaren desestacionalizazioaren eskaintza egitea aukera bezala ikusten da.



Irudia 2: Mundu mailako turismo esportazioak eta nazioarteko bisitarien sarrerak 1996-2018 (Munduko Turismo Erakundea)

Aurreikuspenek diote barne turismoak gora egingo duela.




Llegadas de turistas internacionales e ingresos por turismo internacional (porcentaje de variación)

Fuente: Organización Mundial del Turismo (OMT-UNWTO), julio de 2018.


Irudia 3: Mundu mailako turismoaren hazkundea (Munduko Turismo Erakundea)

Munduko Turismo Erakundeak aurreikusten du, etorkizunean, modu esponentzialean hazten jarraituko duela turismoak. Bidaiarien beharrak aldatuz doaz eta gero eta garrantzi handiagoa ematen zaio iraunkortasunari. Testuinguru honetan, iraunkortasunak eta lehia-kortasunak batera joan behar dute, norabide beretik.



Irudia 4: Mundu mailako turismoan aurreikusitako hazkundea (Munduko Turismo Erakundea)

EAE-n eta Gipuzkoan turismo sarrerak hazten ari dira urtez urte. Horren erakusle da Euskal Estatistika Erakundeak (EUSTAT) 2019an argitaratutako datuak: Gipuzkoako landa-ostatu eta apartamentu turistikoeetan egondako sarrera kopurua 1.365.778 izanik.



TURISMOA GIPUZKOAN 2019			
Jatorria	Sarrerak	Pernoktazioak	Bataz besteko egonaldia
TOTALA	1365778	2878528	2.11
ESTATUA, TOTALA	737081	1566564	2.13
Andaluzia	37585	95191	2.53
Aragoi	38942	82044	2.11
Asturias	19076	37576	1.97
Balearr uharteak	7791	18694	2.40
Kanariar uharteak	9252	22326	2.41
Kantabria	14582	29833	2.05
Gaztela Mantxa	18409	43650	2.37
Gaztela eta Leon	45545	93005	2.04
Katalunia	127092	288986	2.27
Ceuta eta Melilla	-	-	-
EAE	124674	213489	1.71
Extremadura	8618	21053	2.44
Galizia	28193	55521	1.97
Madril	165905	379481	2.29
Murtzia	6220	15997	2.57
Errioxa	12665	21723	1.72
Nafarroa	32411	53555	1.65
Valentzia	40120	94438	2.35
ATZERRIA, TOTALA	628697	1311963	2.09
Alemania	46316	104895	2.26
Belgika	14156	26887	1.90
Frantzia	159778	247749	1.55
Italia	25798	53254	2.06
Portugal	19680	39832	2.02
Erresuma Batua	52710	115913	2.20
Gainontzeko EB	76087	168303	2.21
Gainontzeko Europa	31506	70640	2.24
Amerika	131889	326480	2.48
Gainontzeko mundua	70776	158009	2.23

Taula 1: Gipuzkoako hotel, landa-ostatu eta apartamentu turistikoeetan 2019 urtean zehar erregistratutako turisten sarrerak, pernoktazioak eta bataz besteko egonaldiak (Euskal Estatistika Erakundeak)



Kontuan hartu behar da EUSTAT-ek argitaratuko datu hauek ez dituztela kanpinak, landetxeak eta AIRBNB bezalako merkatu kanpoko beste ostatu aukerak kontuan hartzen. Gainera, Mugetako Mugimendu Turistikoaren ikerketaren (Frontur) datuen arabera, EAE bisitatzen duten nazioarteko bidaiarien gehiengoa egun pasa etortzen da, bertan lo egin gabe. Bertako establezimenduetan lo egiten duen bisitari bakoitzeko 3,6 txangozale bisitatu zuten Euskal Autonomia Erkidegoa 2019ko urtarrila eta ekainaren bitartean. Estatu mailako bisitarien artean ere turista baino txangozale gehiago aurki ditzakegu, Euskal Herriko beste eskualdeetako eta inguruko Autonomia Erkidegoetatik etortzen direnak. Gainera, bai txangozaleen, baita turistaren kopurua ere, urtero hazten ari da eta, datuek, turismo arloan etorkizun oparoa aurreikusten dute.

EAE bisitatzen duten nazioarteko bidaiarien gehiengoa egun pasa etortzen da, bertan lo egin gabe.

1 Atzerritar bidaiariak, bisitari motaren arabera

1. Llegadas de visitantes internacionales por tipo de visitante

		Hiliez hileko datuak								Datu akumulatuak	
		Datos mensuales								Datos acumulados	
		Urtarrila	Otsaila	Martxo	1. hiruhilekoa	Apirila	Maiatza	Ekaina	2. hiruhilekoa	Urtarrila - Ekaina	Ehunekoa (%)
		Enero	Febrero	Marzo	1º Trimestre	Abril	Mayo	Junio	2º Trimestre	Enero - Junio	Porcentaje (%)
Txangozaleak	Excursionistas	449.910	441.557	551.711	1.443.178	624.874	634.212	611.881	1.870.967	3.314.146	78,3
Tunistak	Turistas	123.550	122.131	120.044	365.725	172.784	166.172	211.735	550.691	916.417	21,7
GUZTIRA	Total orokorra	573.461	563.688	671.755	1.808.904	797.659	800.384	800.384	2.398.427	4.230.563	100,0

Irudia 5: Mugetako nazioarteko turismo mugimendua 2019an Euskal Herri mailan (Frontur, Euskal Turismo Agentzia)

Euskal Herrian turismoa nabarmen ari da hazten (Turismo-gastuaren urte arteko aldakuntza-tasa 2018an %4 igo da, BPG-aren %6,1). Nazio Batuen Garapen Iraunkorrerako Helburuak eta Euskadi 2020 Plangintza Estrategikoa kontuan hartuta turismoa ondorengo zazpi ardatzen inguruan egituratu eta antolatu behar da:

- 1) **Kontsolidazioa.** Turistari zuzenduta, beraien bidai ziklo guztian zehar, paregabea den eskaintza turistikoa kontsolidatzeko.
- 2) **Leialtasuna.** Marketin berritzaille eta eraginkorraren erabilerraren bitartez eskaera handitu xede-merkatuetan eta bisitariak erakartzeaz gain hauen leialtasuna lortu.
- 3) **Hazkunde ekonomiko eta soziala.** Turismoaren hazkunde ekonomiko eta soziala, aberastasuna eta kalitatezko lanpostuen sortzaile izatea ahalbidetzen dituzten mekanismoen sorrera.
- 4) **Iraunkortasuna.** Hazkunde iraunkorra eta arduratsua lortzeko eredu baten aldeko apustua eginez iraunkortasuna Euskal Autonomia Erkidegoko turismoaren garapenerako ardatz nagusi gisa ezarri.
- 5) **Lehiakortasuna.** Euskal turismo industriaren lehiakortasuna sustatu eskaera dibertsifikatu bat eskaintzeko.
- 6) **Planifikazioa.** Espazio eta baliabide turistikoaren erabilera planifikatu eta plangintza egiteko tresna egokiak zabaldu.
- 7) **Koordinazio insituzionala.** Informazio gardentasunean eta konfiantzan oinarritutako kudeaketa eta gobernantza sistema berri bat sortuz, euskal administrazioaren maila desberdinen eta sektoreko jarduerak burutzen dituzten eragileen eta erakundeen arteko koordinazio instituzional handiagoa bultzatu.

Eskualde espezifikoean neurri bereziak hartu dira bertako turismoa modu iraunkorrean sustatzeko.

Adibidez, Basquetourrek, Euskal Turismo Agentziak, 2016. urtean euskal kostaldeko posizioamendua eta turismo arloko lehiakortasuna hobetzeko **Kostaldeko Turismo Plan Zuzentzailea** diseinatu zuen. Euskal kostaldea potentzial handiko gune turistikoa izanik, Basquetorren helburua produktu turistikoa berriak sortu, ondare kulturala eta naturala babestu eta errentagarritasun ekonomikoa bateratzeko gai den iraunkortasunean oinarritutako estrategia bat eraikitzea da. Testuinguru honetan, Zumaia Euskal Kostaldea osatzen duten 27 udalerrien turismoa bultzatzen duen trakzio elementu gisa hautematen du dokumentu honek. Bestalde, turismo industriako eragileak, Euskal Kostaldea, bost erakunde, 16 ordezkari eta 850 enpresa ingurutan banatzen ditu.

Halaber, Gipuzkoako Foru Aldundiak Gipuzkoako eskualde, udalerrri eta hiriak kontuan hartuta, esparru geografikoaren araberrako ondorengo ekintzak bideratzen ditu:

- Lurralde oreka lortzera
- Sasoiko oreka eskuratzera
- Giza kapitalaren hobekuntzara
- Helmuga turistikoa nazioartekotzera
- Azpiegituren zein irisgarritasunaren hobekuntzara
- Analisisira eta zuzendaritza iraunkorrera

Gure udalerrien ezaugarriak kontuan hartuta elkarlanean sustatu beharra dago kalitatezko turismo iraunkor bat.


Argi dago, gure herrialdearen eta udalerrien ezaugarriak kontuan hartuta zein bertako kultura eta herri ezberdinen arteko sinergiak direla medio, elkarlanean sustatu beharra dagoela kalitatezko turismo iraunkor bat. Testuinguru honetan Urola Kostako Udal Elkarteak osatzen duten herriak elkarlanean jarduten dute, eskualdeak eskaintzen dituen sinergiekin probetxua ateraz. Bailara bultzatzeko ekintza, proiektu eta estrategiak lantzen dituzte herrietako turismo teknikariek osatzen duten Turismo Lanerako Mahaian. Aurrera eramaten diren jardueren artean ondorengoak dira aipagarrienak:

- **Konferentziak.** Itsas eta kostaldeko baliabideen promozioa eta hau aurrera eramateko konferentzien antolaketa.
- **Esperientzia gastronomikoa.** Kostalde Gastronómicoaren sustapena Urola Kostako eskualdeko herri bakoitzeko produktu gastronomiko berezianak kontuan hartuta (Orioko bisigua, Aiako gazta, Getariako txakolina eta Zumaiako olagarroa). Horretarako, publizitate kanpainak eta esperientziak sortzen dira.
- **Natura ibilbideak.** Urola Kostako eskualdeko baliabide naturalak eta ingurunea ezagutzeko ahalbidetzen duten mendi ibilbideak biltzen dituen maparen sorrera.
- **Gidak.** Urola Kostaren promoziorako eskuorri, artikulua, jate-txe eta ostatu gidaren argitalpena.
- **Dinamiazio plana.** Eskualdeko garapen sozioekonomikoa, modu jasangarri eta arduratsuan, sustatzea helburu duen 2018-2021 Dinamiazio Planaren garapena.

Mikro- -ingurunearen analisi




Orioren ingurune mikroa ikertzerako orduan, Orioren eskaintza eta herriaren eskari potentziala aztertu dira:



ORIOREN ESKAITZA

Hurrengo atalean Orio herri bezala nolakoa den eta herriaren eskaintza aztertu da. Eskaintzaren analisia aztertzeko hurrengo eskema jarraitu da:



ORIOREN ESKAITZA
<ul style="list-style-type: none">• Orio herri bezela• Azpiegitura<ul style="list-style-type: none">- Irisgarritasuna/Garraioa- Aparkalekuak- Ostatuak- Merkataritza- Ostalaritza• Egun dauden baliabide turistikoak• Egun dauden zerbitzu turistikoak• Turisten Orioren inguruko bilaketen emaitzak

1 ORIO HERRI BEZELA

ORIOREN KOKAPENA

Orio Gipuzkoako kostaldean kokatutako herri arrantzalea da, zehatzago Urola Kostako eskualdean. Orio Donostiatik, Gipuzkoako hiriburutik, oso gertu dago, 17 kilometrotara.



Irudia 6: Orioren Kokapena (sorkuntza propia)

BIZTANLE KOPURUA ETA DENTSITATEA


Orion 6.061 biztanle bizi dira eta udalerriaren azalera kontuan izanik (966 ha), Oriok, antzeko biztanle kopurua duten herriekin alderatuta, dentsitate handia dauka, 624,8 biztanle/km²koa.

EUSKAL EAEKO BIZTALE-DENTSITATEA PER LURRALDE EREMUA ETA ALDIA	
	2019
EAE	302,40
Gipuzkoa	362,50
Urola Kosta	236,80
Orio	624,80

Irudia 7: Orioko biztanle-dentsitatea (Euskal Estatistika Erakundea)

ADINAREN ARABERAKO BIZTANLEEN BANAKETA


Orion bizi diren 6.061 hiritarren artean, 3.665 biztanlek 20 eta 64 urte bitarte dituzte. Nabarmentzekoa da 19 urte edo gutxiagoko biztanleak 65 urte baino gehiago dituztenak baino gehiago direla.



Irudia 8: Orioko biztanleria adinaren arabera 2019 (Euskal Estatistika Erakundea)

SEXUAREN ARABERAKO BIZTANLEEN BANAKETA

Sexuaren araberako biztanleen banaketari dagokionez, oriotarren gizon eta emakumeen kopurua oso antzekoa da. Herrian 3.048 gizon eta 3.013 emakume daude. 65 urte baino gazteagoak diren biztanleen artean gizonezkoen kopurua handiagoa da emakumeena baino, 65 urte baino gehiagoen dutenen artean emakumeak dira nagusi.



Irudia 9: Orioko biztanleriaren sexuaren arabera banaketa 2019 (Euskal Estatistika Erakundea)

JATORRIAREN ARABERAKO BIZTANLEEN BANAKETA

Orioko biztanleriaren %9,82 atzerrian jaiotako herritarrek osatzen dute. Urola Kostako beste herrieta-ko, Gipuzkoa eta EAE-ko batuz bes- teko datuekin alderatuta, zertxobait altuagoa da bertan bizi diren atze- rritarren kopurua.

Estatuko beste lurraldeetatik eto- rritako biztanleen kopuruari da- gokionez, Gipuzkoako eta EAE-ko datuekin alderatuta, Urola Kosta eta Orion nabarmen baxuagoa da biztanle hauen kopurua eta handia- goa, berriz, Gipuzkoan bertan jaiotakoena.

BIZTANLERIA JATORRIAREN ARABERA (%)				
	ORIO	UROLA KOSTA	GIPUZKOA	EAE
LURRALDEA	79,3	80,4	71,7	-
EAE (Gainerakoak)	2,2	2,8	3,3	-
Estatuko beste lurral- deak	8,7	8,5	15,6	38,5
Atzerria	9,8	8,3	9,6	9,5
Guztira	100,0	100,0	100,0	100,0



Irudia 10: Biztanleen ehunekoa beraien jato- rriaren arabera ("Pobrezia, desberdintasuna eta gizarte bazterketa Orion", Siadeco). ITU- RRIA: Eustat

Orion erroldatuta dauden eta ja- torria atzerriko herrialdetan duten biztanleen kopurua asko handitu da azken urteetan. Hauen artean, ma- rokoarren eta senegaldarren kolekti- boak dira ugariena. Hego Ameri- karren kopuruak ere gora egin du.

Dena den, Orioko biztanleriaren hazkunde handiena Gipuzkoako beste herrietatik bizitzera etorritako pertsona izan da, atzeritik eto-

rritako pertsona baina ugariagoa. Herriaren kokapen estrategikoa, irisgarritasuna, bizi kalitatea, lasai- tasuna eta inguruko herrietako al- dean etxebizitza prezio baxuagoak izateak eragin handia izan dute in- guruko beste udalerrietan jaiotako herritar berriak erakartzeko orduan ("Pobrezia, desberdintasuna eta gi- zarte bazterketa Orion", Siadeco).



EUSKARAREN ERABILERA

Orion dagoen euskaldunen kopurua oso al- tua da, biztanleria osoaren %76,68. Euskara da erabilitako hizkuntza nagusia, herriko bizi- tzaren elementu eta ezaugarri garrantzitsu- netako bat bilakatzen da. Orio arnagunea da euskararen alorrean. Siadecok egindako Orioko pobrezia txostenaren eta Orioko Udalak helarazitako informazioaren arabe- ra, euskara Orio eta oriotarren nortasunaren osagarri nagusia dela ondoriozta daiteke. Aukera hau aprobetxatu behar da, herri guz- tiek ez dute ezaugarri hau. Elementu strate- giko bilakatu behar da.



BIZTANLERIA

6.061



BIZTANLE DENTSITATEA:
Bizt/Km2

624,8



AZALERA: Ha

966

> 65



65 URTE ETA GEHIAGOKO
BIZTANLERIA: %

15,75



ATZERRIAN JAIOTAKO
BIZTANLERIA: %

9,82



GOI-MAILAKO
IKASKETADUNAK: %

15,75



EUSKALDUNAK: %

76,68



LANGABEZI TASA: %

10,9



ENPLEGUA
ESTABLEZIMENDUETAN

1.146



Irudia 11: Orio herriko hainbat estatistika (Euskal Estatistika Erakundea)

LANGABEZIA TASA

Langabezia tasa %10,9 da Orion. EUSTAT-en estatistiken arabera, 1.146 pertsonak egiten dute herrian bertan lana. Kontuan izanik lan egiteko adinean 3.665 biztanle daudela herrian (16-20 urte arteko biztanleak kontuan hartu gabe) eta langabezia tasa %10,9 dela (400 pertsona inguru) ondorioztatzen da bertako biztanle askok inguruko herrietan egiten dutela lan.


Orioko biztanle askok inguruko herrietan egiten dute lan beste herri horietako produkzio-faktoreen sarrerek handituz.



ESKOLATZE MAILA

Eskolatzeko mailari dagokionez, ikusi daiteke goi-mailako ikasketak dituzten biztanleen kopurua geroz eta handiago dela. Gaur egun, goi-mailako ikasketak biztanleria osoaren %15,75 ditu, hau da, 830 biztanle inguru. Hala ere, biztanleen ikasketen


kualifikazio maila hobetu den arren, kualifikazio alturik eskatzen ez duten jarduera ekonomikoak dira nagusi herrian.



Irudia 12: Eskolatzeko mailaren eboluzioa (Euskal Estatistika Erakundea)


BIZTANLEKO ERRENTA ETA BPG

Orioko heritarren batz besteko lanaren errenta Urola Kostako eta Euskal Herriko beste euskal kostaldeko herrietako lan errenta baino altuagoa da (14.403€/urtean).



Irudia 13: Oriotarren lanaren batz besteko urteko errenta antzeko beste herrieekin alderatuta (Euskal Estatistika Erakundea)

Hala ere, biztanleko BPG-ari begiratuz gero ikus daiteke Orioko ekoizpen-faktore desberdinek 2017. urtean zehar berenganatutako biztanleko sarrerak txikiak direla antzeko herriak beren artean alderatzen badira.



Irudia 14: Biztanleko BPG-a 2017 (Euskal Estatistika Erakundea)

Datu hauek kontuan izanda, ondorioztatu daiteke oriotar askok inguruko herri eta hirietan egiten dutela lan, beste herri horietako produktio-faktoreen sarrerak handituz.

ORIOREN ESKAINTZA

- Orio herri bezela
- **Azpiegitura**
 - Irisgarritasuna/Garraioa
 - Aparkalekuak
 - Ostatuak
 - Merkataritza
 - Ostalaritza
- Egun dauden baliabide turistikoak
- Egun dauden zerbitzu turistikoak
- Turisten Orioren inguruko bilaketen emaitzak

2 AZPIEGITURA

IRISGARRITASUNA ETA GARRAIOA

Orio Gipuzkoako kostaldean kokatutako herri arrantzalea da, Urola Kostako eskualdean. Orio Donostiatik, Gipuzkoako hiriburutik, oso gertu dago, 17 kilometrotara. Gainera, Donostia eta Bilbo konektatzen dituen A-8 autobideak, Orioko herria zeharkatzen duenez, erraztasun handiak eskaintzen ditu bertara gerturatzeko.

Oriora iristeko eta herritik mugitzeko aukera ezberdinak daude: auto pribatua, tren, autobusa, hegazkina, taxia eta txu-txu tren. Hauen inguruko informazio sakona 1. eranskinean jasota dago.

Testuinguru honetan nabarmendu behar da, Donostia Gipuzkoako hiriburua izanik, oso ondo konektatuta dagoela probintziako txoko guztiekin eta estatu mailako beste herri

eta hiriekin. Orio eta Donostia oso gertu daude eta bi udalerriak konektatzen dituzten garraio publikok aukera ezberdinak eskaintzen ditu.

Hori horrela, jatorriko herri edo hiritik zuzenean Oriora bidaiatzeko aukerarik ez badago, gomendagarriena da Donostiara joan eta bertan Oriora doan tren edo autobusen bat hartzea.



APARKALEKUAK

Oriora iristea erraza izan arren, gaur egun, aparkalekuekin dago arazoa. Hori horrela, Orioko Udala aparkalekuaren arazoaren inguruan hausnarke-ta egiten ari da eta epe laburrean irten-bide bat ematea aurreikusten da.

Hondartza aldean aparkaleku kopuru handia dago baina herritik urrun samar gelditzen da. Ez dago ohiturarik hondartza aldean kotxea utzi eta herrigunera bertaratzeko eta, hortaz, kontzentrazioa erabatekoa da herriguneko eremuetan.

Herrigunean dagoen parking handiena futbol zelai albokoa da, baina momentu kritiko asko izaten ditu eta erabat beteta egoten da.

Ekainetik irailera TAO sistema dago hondartzan eta futbol zelaiaren ondoko aparkalekuan.

Herriguneari dagokionez, zonalde urdina dago, bertan erloju sistema erabiltzen da. Aipagarria da herri guneko marra urdinetan ordu batez doan aparkatu daitekeela, baina horretarako aparkaleku diskoa esku-ratu behar da herriko establezimenduetan. Diskoak autoa zein ordutan aparkatu den zehazteko balio du. Dena den kanpotik datorrenari ez zaio argi azaltzen sistema honen existentzia. Zonalde urdinaren ordutegia ondorengoa da:

- Astelehenetik ostiralera: 08:00 – 13:00 eta 16:00-20:00
- Larunbatean: 08:00 – 13:00.
- Ordu horietatik kanpo aparkamendu librea eta doakoa da.


Irisgarritasunari lotuta, Orion hainbat aldaketa egitea aurreikusita dago: alde batetik, plaza eta plazaren peatonalizazioa dago abian, turismo bulegoa plaza inguruan kokatzea hausnartu da, etab. Aldaketa hauek herriaren dinamizazioa sustatzea aurreikusten den arren, aparkalekuekin gaur egun dagoen arazoa areagotu dezake irtenbiderik zehazten ez bada.

MERKATARITZA

Historikoki Orioko ekonomiaren oinarri izan da arrantza, baina arrantzaren sektoreak beherakada handia jasan eta indarra galdu du. Hori horrela, hirugarren sektoreak hartu du bere lekua. Hirugarren sektore horretan merkataritzak eta ostalaritzak berebiziko garrantzia dute, herriaren ekonomian Balio Erantsi Gordinaren %24 jarduera hauek sortutakoa da.


Merkataritzak izaera bat transmititu behar du, herriaren izaera. Itsas elementuak presente izateak aukera bat izan daiteke merkataritza establezimenduen arteko kohesio eta identitate eragile bezala.

EAEko Balio Erantsi Gordina (BEG), udalerrien eta jarduera-sektoreen arabera (udalerrikoa eskualdekoaren zein portzentaia den) per udalerria, jarduera-sektorea eta aldia



Irudia 15: Orioko Balio Erantsi Gordina (Euskal Estatistika Erakundea)

Testuinguru honetan, aipagarria da, Gipuzkoa mailan 5.000-7.000 biztanle arteko herrien artean Orio dela establezimendu gehien dituen hirugarren herria. Oriok, 6.000 biztanle eta 74 merkataritza establezimendu izanik, 12,54ko merkatal dentsitatea du (EUSTAT-ek jasotako 2017ko datuen arabera).



Gipuzkoan, 5.000-7.000 biztanle arteko herrien artean Orio da establezimendu gehien dituen hirugarren herria.

Irudia 16: Merkataritza dentsitatea (Euskal Estatistika Erakundea)

Orioren gaur egungo merkataritza sektorearen egoera aztertzerako orduan, kontuan eduki behar da, merkataritza eskaintza zabala duten bi herriren eta merkatal-gune baten artean kokatutako herria dela. Alde batera Zarautz du, 23.040 biztanleko eta 353 merkataritza establezimenduko herri bat, eta beste aldera berriz, Donostia, 180.179 biztanle eta 2.876 establezimenduko Gipuzkoako hiriburua. Horiez gain, zona komertzial garrantzitsu bat du 15 minutura, Urbil eta Mercadona. Faktore horiek, noski, eragina dute Orioko komertzioen salmentetan, baina hala ere, aipagarria da, hau guztia kontuan izanik, oraindik ere Oriok duen establezimendu kopuru altua.

ORIOKO DENDAK		
IZENA	HELBIDEA	TELEFONOA
Iban Eigurena argazkilaria	Eusko Gudarien kalea, 5	943000425
Rosana Arruti Argazkiak	Aita Lertxundi kalea, 26	943835845
BBVA	Eusko Gudarien kalea, 22	943832800
BSCH	Eusko Gudarien kalea, 9	943834700
Euskadiko Kutxa	Kaia kalea, 7	943894019
Kutxabank	Balearen kalea, 2	943134260
La Caixa	Eusko Gudarien kalea, 22	943306320
Lasa Botika	San Nikolas kalea, 9	943830936
Gallego Otxagabia Botika	Arrantzale kalea, 37	943832561
Carmen arrandegia	Aritzaga kalea, 1	943830537
Txomin arrandegia	Eusko Gudarien kalea, 42	943832747
Iparragirre autozerbitzua Coviran	Iturbide kalea, 19	943831715
Eroski Center	Ixarrakalea	943892148
Dia supermerkatua	Arrantzale kalea, 2	671729685
Dorronsoro Spar supermerkatua	Abeslari kalea, 3	943830937
Eroski City supermerkatua	Eusko Gudarien kalea, 13	943833875
Eki Lorea belardenda	Eusko Gudarien kalea, 5	943831377
Al Raifrutadenda	Aita Lertxundi kalea, 25	631411867

Coaliment fruta denda	Eusko Gudarien kalea, 46	943840880
Gozategi fruta denda	Eusko Gudarien kalea, 11	943831381
Alejandro Oliden Harategia	Eusko Gudarien kalea, 2	943831086
Balardi Harategia	Eusko Gudarien kalea, 9	943834095
Kepa Loidi Harategia	Pelotari kalea, 1	943892565
Patxi Oliden Harategia	Eusko Gudarien kalea, 25	943830010
Olatu goxoki denda	Abeslari kalea, 3	
Kukuarri	Aita Lertxundi kalea, 36	943830984
Gelatto	San Nikolas kalea, 1	943578176
Goxo-denda	Eusko Gudarien kalea, 33	943833920
Kutixi	Aritzaga kalea, 9	943131517
Leudna	Aritzaga kalea, 6W	943890067
Ogiberri	Aita Lertxundi kalea, 25	943835827
Sayalero	Eusko Gudarien kalea, 9	943132417
OriokoLoteriaAdministrazioa	Eusko Gudarien kalea, 6	943831089
Iturain tabako denda	Aritzaga kalea, 5	943134473
Izaskun tabako denda	Eusko Gudarien kalea, 23	943134473
Maite Oregi, barne dekorazioa	Endaia, 3	943868298
Andu Altzariak	Eusko Gudarien kalea, 10	943130999
Leunda Altzariak	Kaia Kalea, 5	943830364
Sagasti Leihoak	Eusko Gudari, 7	943130077
Uranga burdindegia	Eusko Gudarien kalea, 5	943831236
Lizaso	Eusko Gudarien kalea, 48	943830784
Expo elektrizitatea	Aritzaga kalea, 1	600856728
Izarra elektrogailuak	Eusko Gudarien kalea, 44	943833881
Juan AlbizuElektrogailuak	Abeslari kalea, 6	943831249
Asai Informatika	Eusko Gudarien kalea, 17	843631526
3B Informatika	Abeslari kalea, 4	943536505
Zipristin inprimategia	Arrantzale kalea, 3	943578733
Ontza Liburu Denda	Abeslari kalea, 6	943831333
Mauka Paperdenda	Abeslari kalea, 1	943572083
Muxutrukloredenda	Eusko Gudarien kalea, 11	943834117
Argiñe	Eusko Gudarien kalea, 9	943134889
Kaioa	Arrantzale kalea, 8	943244685
Lucia oinetakoak	Eusko Gudarien kalea, 16	943543955
Mara	Eusko Gudarien kalea, 28T	
Rosa	Aritzaga kalea, 2	943131943
Soia	Aita Lertxundi kalea, 22	943506234
TtipiTtapa	Eusko Gudarien kalea, 15	
Itziar kirolak	Eusko Gudarien kalea, 23	943833103
Txema Motoak	Aita Lertxundi kalea, 24	943133505
Txinatarbazarra	Aritzaga kalea, 4	
OriokoBazarra	Eusko Gudarien kalea, 17	
Orio optika	Herriko plaza, 3	943130582
Haize Berri Lokutorioa	Aritzaga kalea, 13	
Locutorio Orio	Abeslari kalea, 2	943508494

Herriko komertzio kopururik handiena bi kaletan kontzentratzen da, Eusko Gudari eta Arrantzale kaleetan. Hori horrela, zonalde hau litzateke herriko komertzio gunerik garrantzitsuena.

----> Taula 2: Orioko dendak

OSTALARITZA

Ostalaritzari dagokionez, asko dira aurki ditzakegun establezimenduak, tabernak eta jatetxeak.

Orion, gainera, ostalaritza establezimenduen artean badaude erreferentziazko hainbat jatetxe: Bodega Katxiña, Xixario Erretegia, Orioko Barra, Balea, Bodegon Joxe Mari, San Martin, Sarasua eta Talaimendi/Haizea. Parrila da ezberdintzen gaituen adierazlea.

Ostalaritzako establezimenduen kokapenari dagokionez, hondartza, plaza, eta Aita Lertxundi kalea dira jatetxe zein taberna kontzentrazio handiena duten zonaldeak.

ORIOKO OSTALARITZA ESTABLEZIMENDUAK	
IZENA	HELBIDEA
Bodega Katxina	Ortzaika aldea
Xixario Erretegia	Eusko Gudari 2
Orioko Barra	Antilla 1- behea
Balea	Antillakalea 5
Boga-Boga	Hondartza bidea
Joxe Mari	San Nikolas kalea 3
San Martin	San Martin auzoa 14W
Sarasua	Eusko Gudari 29
Talaimendi/Haizea	Hondartza bidea, 1
Arkaitz Taberna	Abeslari 4
ItzalaKafetegia	Eusko Gudari 24
Baraka Taberna	Aita Lertxundi 23
Restaurante Antilla	Abeslari 2
Salatxo Taberna	Ibai ondo 3
Aterpe Taberna	Aita Lertxundi 38
Sukia Taberna	Abaromendi 38
Mola	Hondartza bidea
Kolon Txiki	San Nikolas kalea 11
Oliden	Ortzaika aldea
Anarri	Hondartza bidea 16
Awais Kebab Orio	Eusko Gudari 34
Haize Berri	Erribera kalea 1
Zaharren Babes Lekua	Herriko plaza 1
Kaiua	Anibarko portua, poligono, 35
Niko	Palota kalea
KaletaPizzeria	Arrantzale kalea 10
Aurrera	Estopalari kalea 12
Bordatxo	Herriko plaza 5
Goizeko	Aita Lertxundi 27
Gure Txoko	Aritzaga kalea 2
Kalakari	Aritzaga kalea 6
Azkue Goxoki	Eusko Gudari 33
Gelatto Ogi Berri	San Nikolas kalea 15
Ogiberri	Aita Lertxundi kalea 25
Sayalero	Aritzaga 11
Kutixi	Aritzaga 9
Gabon Taberna	Eusko Gudari 7
Goxoki Azkue	Eusko Gudari 33
GureTxoko	Aritzaga 2
Errusta	Aritzaga 8
Tragoxka-taberna	Almirante Oa- behea

Taula 3: Orioko ostalaritza establezimenduak



ALOJAMENDUAK

Alojamendu eskaintzari dagokionez, gaur egun Orio bisitatzen duten bisitariak aukera ezberdinak dituzte bertan lo egiteko eta mota ezberdinetako alojamenduak aurki ditzakete bisitariak Orio: hotelak, nekazal etxeak, pentsioak, kanpina, apartamentuak etab.

EZAUGARRIAK	
HOTELAK	
HOTEL & THALASSO VILLA ANTILLA	3 izar, 50 logela
TXANKA ERREKA HOTELA	1 izar, 14 logela
PENTSIOAK	
XALOA PENTSIOA	2 izar, 10 logela
KANPINA	
ORIO KANPINA	34 bungalow / 734 partzela
ZINGIRA (Aia)	4 bungalow / 120 partzela
ATERPETXEA	
ERROMESEN ATERPETXEA	20 logela
NEKAZAL ETXEAK	
AIZPERRO LANDETXEA	12 + 3 pertsona
AMALUR NEKAZALTURISMOA	12 + 2 pertsona
ERRETZABAL TXIKI LANDETXEA	8 +2 pertsona
IGELDO NEKAZALTURISMOA	12 +5 pertsona
ITXASPE NEKAZALTURISMOA	16 + 3 pertsona
APARTAMENTUAK	
LUSARBE APARTAMENDUAK	3 gela (4+ 4 + 6)
MADDIOLA APPART APARTAMENTUAK	-
ORIO APARTMENTS APARTAMENTUAK	-
MIROTZA ROOMS & APARTMENTS	7 gela



Taula 4: Orioko alojamenduak

ORIOREN ESKAINTZA

- Orio herri bezela
- Azpiegitura
 - Irisgarritasuna/Garraioa
 - Aparkalekuak
 - Ostatuak
 - Merkataritza
 - Ostalaritza
- Egun dauden baliabide turistikoak
- Egun dauden zerbitzu turistikoak
- Turisten orioen inguruko bilaketen emaitzak

3 EGUNGO BALIABIDE TURISTIKOAK

BALIABIDE HISTORIKO ETA NATURALAK

HISTORIA

Nahiz eta erromatarrek izan antzina-ko Vasconia herriaren inguruan idatzi zuten lehenengo gizakiak (K.A. II. mendean), Oriotik oso gertu aurkitu ziren Europako margolan zaharrena, hain zuzen Altxerriko kobazuloetan. Altxerri aurkitutako margolanak 39.000 urte inguru dituztela zehaztu dute zientzialariek eta badirudi garai hartan jendea bizi zela Orio inguruko kobazuloetan.

Donostia eta Orio arteko ibilbidean ere hainbat dolmen eta cromlech aurkitu dira.

Nafarroako Erreinuaren garaiko testu batzuetan aipatzen da Orio lehen-dabiziko aldiz, baina herri inguruan aurkitutako aztarna geologikoen arabera, badirudi aspalditik egon direla gizakiak Orio eta inguruko lurraldetan bizitzen. Testu horretan Orio Donostiaren menpean dagoen herri bat bezala deskribatzen da.

Nafarroako Erreinuak Gipuzkoa bereganatu zuenean, Orio bilakatu zen probintziako burdin esportazioen lehe-

nengo portua. Portu garrantzitsu bat izanik bertako ekonomia asko garatu eta hazi zen eta itsasoarekin erlazionatutako jarduerak bilakatu ziren herriaren ekonomiaren oinarri, arrantza eta ontzigintza batez ere. Nahiz eta ekonomikoki herri indartsua izan, herri izendapena lortu zuen azkenetakoa da Gipuzkoan eta 1.379 urtera arte Donostiaren menpean egon zen.

Baliabide historiko asko ditu Oriok. Inguruko beste herri eta hiriak ez bezala, gerra garaietan herria ez zen suntsitua izan eta Erdi Aroko hainbat eraikin mantentzen dira oraindik. Horren adibide da XII. mendean eraikia izan zen Orioko alde zaharra.

Erdi Aroan, eta baita gaur egun ere, erromesek Orio zeharkatzen zuten Santiagorako bidean eta fededunentzat interes handiko altxorrek ezkutatzten ditu herriaren alde zaharrak, San Martin ermita eta San Nicolas eliza adibide.

San Martin ermita XIII. Donejakue bidean kokatuta dago eta Orioko herri-
ra sartu baino lehenago egiten dute topo erromesek ermitarekin. Ermita

ondoan garai hartako Seroren etxebizitzaren aztarnak ikus daitezke. Ermita XVI. mendean izan zen berreraikia baina, originala, XII. mendekoa dela uste da. Kondaira asko daude eraikin honen inguruan, batzuen arabera herrian eraikitako lehenengo eliza da, beste batzuen esanetan berriz, lazareto bezala izan zen erabilia eta bertan gelditzen ziren Orio ingurura iristen ziren erromes gaixoak.

San Nicolas eliza XVI. mendekoa da. XVI. mendea garai oparoa izan zen eta oparotasun ekonomiko hori adieraz zezakeen estilo errenazentistako eliza eraikitzea erabaki zen. Estalita-ko atrioak eta portoi ondoan Jorge Oteizaren omenez jarritako plaka dira ezaugarri nabarmenenak.

Itsasoari lotutako baliabide historiko asko ditu Oriok. Burdin esportazioen lehenengo portua izan zen.

ORIA IBAIA

Oria ibaia herri erdigunean kokatuta dagoen natur baliabide garrantzitsua da. Orioko historiaren eta ohituren testigu garrantzitsua da, inguruko herrietatik bereizten duena.

Aukera anitzeko baliabidea da: kirola egiteko, jolasteko, ibilbideak antolatzeke, etab. Horiez gain, Oriok duen ingurune berdingabeaz gozatzeko giltzarria da: Motondo, Txurruka, Saikola, Mutiozabal, moila zein Antilla hondartza, guztiak bere ibilbidean hartzen baititu.

Herriarentzat hain garrantzitsua den arrauna ibaiarekin oso lotuta dago, baita arrantzarekin ere. Kantauri itsasoa oso arriskutsua izanik eta itsasoratzeko arrantzaleek arazoak izanik, ibaian arrantzatzen ziren angulak eta izokinak. Azkenengo hau desagertu egin zen aspaldi, baina badirudi azken urtetan Oria ibaian arrain mota hau berreskuratzen ari dela.

MOTONDO

Oria ibaiaren inguruetan dauden hezeguneak berreskuratu eta horiei balioa ematea garrantzitsua litza-teke. Motondo turismo eskaintza moduan erakargarria izan daiteke etorkizunean. Herriarekin identifikatu behar da gunehori, herritik duen etena ezabatu. Hezegune honek ate ezberdinak irekitzeko aukera eskaintzen du, txori behatoki moduan egikaritzuz, adibidez.

HONDARTZAK

Oriok, kostako herria izanik, hondartza ederra du. Herri erdigunetik aparte dagoen arren baliabide turistiko garrantzitsua da Antilla hondartza eta, uda sasoiaren jendea erakartzen duen baliabide turistiko nagusia da. Antilla hondartzak, gainera, gehigarri historiko bat du, bertatik irteten baitziren Karibe itsasoko uharteetara, hortik datorkio izen hori.

Oria ibaia Orioko historiaren eta ohituren testigu garrantzitsua da, inguruko herrietatik bereizten duena.



IBILBIDEAK

Orioko udalerria natura ingurune berdingabeen kokatzen da. Erakargarria eta ugaria da, berde eta urdinak bat egiten dute. Paisaiaren aberastasun apartaren ondorioz, mendi-ibilaldiak eta kanpoko jarduerak egiteko txokoak aurki ditzakegu Orioko inguruan. Baina gaur egun ez dago natura ingurune bezala posizionatuta merkatuan.

Orioko udalerria natura ingurune berdingabeen kokatzen da. Erakargarria eta ugaria da, berde eta urdinak bat egiten dute.



Irudia 17: Orioko ibilbideak (Kostaldea. eu)

Orografiari dagokionez, nabarmendu daiteke Igeldo-Mendizorrotz-Kukuarrri kostaldeko ibilbidea, ibilbide honek kostaldea zeharkatzen du eta txangozaleak Kukuarrin 364 metroko altuerara iristen dira gero, maldan behera, Orioraino jaisteko aukerarekin. Itsasoaren kostalde basatia eta bertako itsaslabarrak ibilbideari zirrara gehitzen diote.

Horrez gain, Oriotik Getariaraino oinez joan gaitzke kosta inguruaz gozatuz. Tartean, Zarautzen geldialdia egin daiteke. Ibilaldiak ez du aparteko zailtasunik eta Aitzondotik barrena Txurrukara iritsi eta Talaimendira igo eta Zarautzera iristeko

aukera dago. 5-6 kilometroko ibilbidean Zarautzera iritsi gaitzke.

Aurrera jarraitu nahi bada Getariaraino iristea posible da, kostaren alboan dagoen paseotik barrena. Oriotik Getariara 10-11 kilometroko kosta ibilbidea osatuta iritsi gaitzke. Itzulera garraio publikoa erabiliz egin daiteke.

Berdeguneetara gehiago barneratu gaitzke, Oriotik Aiara dagoen ibilbidea osatuta. 7 kilometro inguruko natura ibilbidea osatuta Agorregiko burdindegitik barrena Aiara iritsiko gara. PR GI 201 marka zuri horiak jarraitu behar dira.

DONEJAKUE BIDEA ETA DONEJAKUE INTERPRETAZIO ZENTROA

Aurreko puntuan esan bezala, mendi ibilbide ezberdinak egin daitezke Orion. Donejakue Bideak, euskal kostaldea eta Orio zeharkatzen dituen "kostako bidea" barne hartzen du. Donejakue bideak nazionalitate ezberdineko jendea bildu eta erromes ugari mugitzeko gaitasuna duen bidea da. Baina gaur egun ez dago Orio Done Jakueko merkaturan estratetegikoki posizionatuta.

Fededun asko erakartzeko gaitasun hori dela eta, Oriok erromesei zuzendutako hainbat zerbitzu eskaintzen ditu: erromesentzako aterpetxea eta Donejakue interpretazio zentroa.

Donejakue interpretazio zentroa XVI. mendeko hiru solairuko jauregi batean kokatuta dago, Iturriaga jauregian. Bertan erromesei informazioa eskaintzeaz gain, modulu elkarrreragileak, ikus-entzunezkoak eta bestelako hainbat-material dituzte, Donejakue bideak urtero 280.000 pertsona zergatik mugiarazten dituen azaltzeko.

Interpretazio zentro honetan Orioren historia eta bertako kulturaren inguruko saio eta jarduera ezberdinak antolatzen dira.



Irudia 18: "Orio eta Itsas Ondarea" jardunaldiaren kartela (Euskal Kostaldeko Museoak)

BALIABIDE KULTURALAK

ITSASOA, IBAIA ETA ARRANTZA

Itsasoarekin, ibaiaren eta arrantza-rekin lotutako herria da Orio. Garai horietatik ohitura eta lan batzuk bizirik diraute oraindik (arrantza, arrautza, gastronomia) eta beste batzuk, berriz, aztarna nabariak utzi dituzte (ontzigintza).

Orioko iraganeko piraten historiak eta bale arrantzaleen kondairak berreskuratu eta balioan jartzea garrantzitsua litzateke, hauek herriaren historian zehar pisu handia izan dute eta.

MUSIKA

Benito Lertxundi Euskal Herri mailan ezagunenetakoa den kantari oriota da. Euskal Herriko herritar ugari-entzat erakargarri bilakatu daiteke herrian Lertxundiren inguruko zerbait balego. Benito Lertxundirekin batera, hainbat dira Orion jaiotako talde eta abeslariak: Asier Gozategi eta Julen Alonso trikitilariak, Xabier Lizaso...

Musikariez gain, musika inguruko jarduerak ere badute bere garrantzia Orion. Donostiko Jazzaldiak Orion kontzertu batzuk egin izan ditu. Honez gain, organo kontzertuak ere garrantzitsuak izan daitezke herri-entzat.



EUSKARA

Orio herri txikia izanik, euskara osasun egoera onean mantentzen da. Hizkuntzak altxor kulturalak dira, beren hizlarien jarreran eragina dutenak eta kulturen oinarritzko elementu bat da hauetan eragin zuzena izanik. Euskara eta bere erabilera erakargarria izan daitezke herrira datozenentzat.


Hizkuntzak altxor kulturalak dira. Euskara eta bere erabilera erakargarria izan daitezke Oriora datozenentzat.

JORGE OTEIZA

Jorge Oteiza eskultore eta arte-teorilaria Orion jaio zen. Eduardo Txillidarekin batera, XX. mendeko euskal herritar eskultorerik garrantzitsuena bilakatu zen eta bere itzala mundu guztira zabaldu da. XX. mendeko bigarren erdiko abangoardia artistikoetan izan du eragina, baita Euskal Herriatik kanpo ere. Esperimentazioarekin eta arteak gizartea eraldatzeko duen ahalmenarekin erabat konprometitutako sortzailea da.

Orion Oteizaren hainbat eskultura topa daitezke. Eskultura horietako bat "Kukuarriko birjina" da Oteizak mendizale guztiei egindako opari bat eta Kukuarri mendian aurki daitekeena.

San Nikolas elizaren azpiko bobedan ere Oteizaren artearen irudikapen bat aurkitu daiteke. Bertan Oteizaren "pietatea" artelanaren egurrezko erreproduktzio bat aurki dezakegu. Obra hau herriko artisau batek egin zuen egurrekin eta, nahiz eta Oteizaren obra originala ez izan, Oteizaren artea ikusteko aukera eskaintzen du. Posizionamendu aldetik, kostatzen da Orio Oteizarekin harremantzea.




BALIABIDE ARKITEKTONIKOAK

MUTIOZABAL

Mutiozabal ontziolak, Orioren esentzia jasotzen du bere barnean. Oriotarren historian garrantzi handia izan duen lanbide baten azken aztarnak dira, ontziolen garai bateko historia kontatzeko beharrezkoa dena. Donostiak duen ontzigintza museoa-rekin harremana eduki lezake eta, modu horretan, bien arteko lotura eginez, kanpoko jendea erakartzeko aukera gehiago dago.

Albaolak, Mutiozabalekin elkarlanean, jendaurrean 15 metroko patatxe bat eraikitze proiektua du, kortsarioek asko maite izan duten ontzi mota bat hain zuzen ere. Gure kostaldean jada desagertuta dagoenez, Orioko Mutiozabal ontziolan aurkitutako planoetan oinarritua ekingo liokete lanari. Sinergia hori sortzeak Mutiozabal proiektua biziberrituko dezake.




KOFRADIA

Garrantzia handiko eraikuntza izan da Orioren historian; berriz ere indar hori berreskuratzea garrantzitsua litzateke, historikoki duen garrantziarengatik eta herri erdiguneari eman diezaiokeen indarrarengatik. Turismoari begira, estetikoki herri erdigunearen eraberritzean asko lagunduko luke kofradia berreskuratzeak.

ARRAUNETXEA

Arrauna herriaren identitatea da, herriaren arima. Orioren kanpora begirako promozioa egiteko aukerak eskaintzen ditu arraunak; besteen artean, aulki mugikorrek zein tostako arraunak eman dezake horretarako aukera.

Orioren arraunak duen garrantzia herri-tarengan nabaritu daiteke. Horretara bideratuta, Arraunetxe goi mailako kirol zentroa dago herrian eta aukera eta zerbitzu anitz eskaini daitezke bertan kirola sustatzeko, batez ere goi mailakoa. Bertako baliabideak hobeto kudeatu, bisitariei, herritarrei begira jartzea giltzarri izan daiteke. Honek turistikoki aukera asko eskaini ditzake.



Momentu honetan, Arraunetxen bertan kirol jarduerak eskaintzen dituen enpresa pribatu bat dago, Begi Bistan, eta ondorengo zerbitzuak eskaintzen ditu: padel surfa, bigsup, ibaiko jaitsiera, piragua, arrauna eta arraun-potea.

Finean, Arraunetxe turismoa erakartzeko baliabide garrantzitsua izan daitekeela aurreikusten da. Kirol aukeraz gain, beste ekintza sozialetarako (hitzaldi, konferentzia...) toki aproposa da arraunetxea, baina erabilera horietarako, araudi bat onartu eta aplikatu beharra dago aurretik.

*Arraunetxeko
baliabideak hobeto
kudeatu; bisitariei,
herritarrei begira jartzea
giltzarri izan daiteke.
Honek turistikoki aukera
asko eskaini ditzake.*

ALDE ZAHARRA

Orioko Alde Zaharrak balio historikoa handia du eta Erdi Aroko hainbat eraikin mantentzen dira bertan. Eraikin ezberdinen artean, Tourseko San Martin ermita edo Bariko San Nikolas parrokia dira ezagunenak.

Bere kale malkartsu eta ia labirintikoak, blabonoek, zizelkatutako haerharriak, kolore biziko balkoiek eta harriztatutako kaleek Erdi Aroko zaporea ematen diote Orioko herriari.

Alde Zaharretik ibilita Erdi Aroko estilo errenazentista eta barroko etxebizitzak ikus daitezke, garai bateko oparotasun ekonomikoaren seinale. Nafarroako Erreinu portua izanda, Oriok hazkunde ekonomiko handia bizi izan zuen, itsasoa eta itsas merkataritzarekin erlazionatutako jarduerak eta industriak asko garatu ziren eta herria asko aberastu zen. Garai hartako oparotasuna alde zaharreko arkitekturan islatzen da.

Kale Nagusiko 6. eraikinean adibidez, harri gainean zizelkatutako eskultura bat aurki dezakegu, karabela bat irudikatzen duen erliebe bat. Honek adierazten du etxebizitza horren jabea kapitaina, merkataria edo ontzizigilea zela. Alde zaharrean dagoen historiari txinpartak ateratzea dagoela aurreikusten da.

KIROL MUNDUAREKIN ERLAZIONATUTAKO BALIABIDEAK

ARRAUNA

Arraunaren garrantzia nabaria da Orion. Kirol arloan CRO Orio Arraun Elkartearen herriko kirol talde garrantzitsua da.

Orioko traineruaren lehenengo erreferentzia ofizial idatzia 1879. urtekoa da, Donostiako Kontxako Estropadetan izan zen eta bigarren postua lortu zuen Donostiako traineruaren atzetik.

Garai hartan arraunlariak herriaren izenean aritzen ziren, Orio. Udaleko batzordea edota Arrantzaleen Kofradia arduratzen zen garai hartako traineruaren kudeaketa eta antolaketaz.

Kontxako Bandera gehien lortu duen arraun elkarte da Oriokoa. XX. mendea hasi zenetik, hamarkada guztietan irabazi ditu Kontxako Banderak eta Espainiako Txapelketak.

Kirol honekiko dagoen zaletasuna nabaria da herrian eta oriotar asko mugitzen dira leku batetik bestera arraun taldearen estropadak jarraitzeko. Txapelketak irabazten diren bakoitzean hori koloreko kamisetak eta festa giroa da nagusi herriko kaleetan. Arrauna da Orioko herritarrek bat egiten duten esparruetako bat.

MENDIA

Mendi lasterketak ere gorakada handia izaten ari dira azken urteetan eta Orion ere nabari da zaletasun hori. Orioko inguruneak mendi lasterketak antolatzeko aukera bikaina eskaintzen du.

Aurreko urteetan mendi lasterketa egon den arren, aurten COVID-19aren krisia dela eta bertan behera gelditu da mendi lasterketa.

Lasterketa hauen antolaketak bisitariak erakartzen ditu herrira, bai lasterketan

Kirol erreferente garrantzitsuak eman ditu Oriok. Ez da kasualitatea herriaren izaera ikusita. Horiek, Oriori prestigioa ematen diete.

parte hartuko duten korrikalariak, baita beraien familiak eta ikusleak. Interesgarria izango litzateke pertsona hauei zuzendutako ekintza eta jarduerak antolatzea, lasterketa egunean bertan edota lasterketa ospatuko den astean.

ATLETISMOA

Azken urteetan ere atletismoak hazkunde nabaria izan du Orion. Testuinguru honetan, nabarmenezkoa da azken urteetan Behobia-San Sebastian lasterketan lehenengo sailkatuen artean kirolari oriotarren kopurua handia izaten ari dela.

2019 urteko Behobia-San Sebastian lasterketan adibidez, Hossain Kaanache oriotarrak hamabosgarren postua lortu zuen 01:04:57ko denborarekin. Berarekin batera, beste 66 oriotarrek hartu zuten parte proba honetan eta horietatik bostek lortu zuten lehenengo 100 korrikalarien artean sailkatzea (lasterketa 27.183 lagunek bukatu zuten).

PARAPENTEAK

Parapentista ugarik egiten dute kirol modalitatea hau Orion. Kukuarri menditik abiatu eta Orion lur hartzen dute. Euskal Herriko lekurik onenen artean katalogatutako dago kirol hau egiteko.

PILOTA

Orioko Pilota Elkartearen indarberritzen ari da eta pilota eskolaren bitartez gaztetxo asko ari dira pilota munduan barneratzen. Herri artean egiten dituzten topaketek herrira jendea bideratzen dute.

ESKUBALDIA

Orioko Eragin klubaren sorrerarekin kategoriatan ezberdinetan emakumezko neska askok heldu diote eskubaloiari. Pixkana-pixkana hazten joan daitekeen elkarte da eta emakumezkoen kirolaren sustapenean lan handia egiten dihardute.

HERRI KIROLAK

Kopuru handia ez bada ere herri kirolletan jarduten duten kirolari kopurua hazi da azken urteetan, Joseba Ostolazaren herri kirol eskolari esker.

SURFA

Orioko hondartzak surf egiteko ezauzgarri bikainak ditu. Adin tarte ezberdineko jendea aritzen da kirol honen praktikan. Erronka surfaren inguruan dagoen lokalismoari aurre egitea da.

PIRAGUA

Arraunetxearen sorrerarekin azken urteetan piraguistak ikusi ohi dira ibaian. Kirol modalitate honen praktikaren beharrak erabat asetzeko baliabideak ditu Oriok.

KIROL PORTUA

Kirol portua toki estrategikoan kokatuta dago, hondartza eta herrigunearen artean. Baliabide honi probetxua atera behar zaio.

BESTELAKO BALIABIDE ETA ZERBITZU BATZUK

GASTRONOMIA, PARRILA ETA BISIGUA

Euskal Herriaren bereizgarrietako bat da gastronomia, baita Orion ere. Hori sustatzeko "Oriko Estilora!" marka sortu zen eta urtero Bisigu Eguna ospatzen da Orion. Hala ere, oriotarrek ez dute egun hau berea sentitzen.

Oriok Kosta Gastronomikoa proiektuan hartzen du parte. Kosta Gastronomikoa bost esperientzia eskaintzen ditu eskualdeko herri ezberdinetan. Esperientzia bakoitza herri bakoitzaren produktu bereziaren inguruan izan da eraikia, herri horretako itsas produktu gastronomikoen inguruan. Orioren kasuan, bisigua da promozionatzen den produktua. Testuinguru honetan Orion bisita gidatu berri bat sortu zen uda sasoirako, "Oriko Estilora!". Bisigu bat parrilan nola erretzen den irakastea zen bisitaren helburu nagusia.



HERRIKO FESTAK ETA OSPAKIZUNAK

Urtean zehar Orion ospakizun eta jai ezberdinak antolatzen dira. Horiek bisitariak erakartzeko faktoreak kontsideratu daitezke.

- **San Nikolas jaiak:** Abenduan ospatzen diren jaiak dira. Inguruko herrietatik eta kanpoko beste udalerrietatik jende asko hurbiltzen da Oriora festa hauetaz gozatzera. Hainbat jarduera antolatzen dira: herri kirolak, dantzak, bertsolariak, kontzertuak, etab.
- **San Pedro jaiak:** Ekainean ospatzen diren jaiak dira. Herriarentzat festa garrantzitsuak izan arren, San Nikolas jaiekin alderatuta kanpotik ez da hainbeste jende etortzen Oriora, izan ere, San Pedroak inguruko herri ezberdinetan ospatzen dira. Jai hauetan, hainbat ekintza antolatzen dira: herri kirolak, dantzak, bertsolariak, kontzertuak, etab.
- **Balearen eguna:** Balearen Eguna festa egun handia da Orion, bost urtetik behin ospatzen dena. 2001ean egin zen lehen aldiz, gogora ekartzeko oriotarrek Bizkaiko Golkoko azken balea harrapatu zutela 1901ean. Geroztik, beste hiru aldiz ospatu da: 2006an, 2011n eta 2016an. Datorren urteko maiatzaren 14an ospatuko da hurrengo Balearen Eguna.
- **San Martin:** Ortzaika auzoan ospatzen diren festak dira. Jai hauek ez dute indar handirik herrian.



- **Bisigu Festa:** Orioko gastronomia eta jatetxeak promozionatzeko sortutako festa da. Uztailean antolatzen da festa hau eta herriko plaza parrila erraldoi batean bilakatzen da. Hiruzpalau egunez 1.000 pertsonentzako bisigua prestatzen da. Oriotarrek kanpoko jendea erakartzeko festa gisan ikusten dute eta ez dute berea sentitzen.
- **Arraun Eguna:** Orioko traineru jaitsieraren harira ospatzen den eta egun osoko programa duen festa. Estropadan 90 traineru eta 1.200 arraunlari inguruk hartzen dute parte eta inguruko herrietako jende asko hurbiltzen da herrira arraun jaiaz gozatzera. Arraunlariak espainiar estatutik zein Frantziatik etortzen dira.
- **Garagardo Azoka:** Oriko Arraun Elkarteak maiatzeko azken asteburuan antolatzen du garagardo azoka. Kanpotik ez du jende askorik erakartzen baina herritarrek mugitzea lortzen du. Ez da herrian indar handia duen jai, baina pixkana-pixkana hazten doa.
- **Gazte Festak:** Iraila erdian Orioko gaztetxeak antolatzen duen festa: gazteen bazkaria, kalejira, kontzertuak. Kanpotik bisitari asko erakartzen ez badu ere herriko gazteek parte hartzen dute jaietan.

ORIOREN ESKAINTZA

- Orio herri bezela
- Azpiegitura
 - Irisgarritasuna/Garraioa
 - Aparkalekuak
 - Ostatuak
 - Merkataritza
 - Ostalaritza
- Egun dauden baliabide turistikoak
- **Egun dauden zerbitzu turistikoak**
- Turisten Orioren inguruko bilaketen emaitzak

4 EGUNGO ZERBITZU TURISTIKOA

KANPINA

Udal kanpina, herrian gaua pasatzeko dagoen eskaintza garrantzitsuena da. Hondartza alboan du kokalekua eta, herrigunetik, hamar minutu ingurura dago oinez. Udal kanpinaren eta herrigunearen arteko oinezko ibilbideak indartzea litzateke erronka. Kanpin gutxi dago Euskal Herrian hondartza eta mendia hain gertutik lotzen dituen.

TXU-TXU TRENA

Txu-Txu trenari Orioko herriak udan eskaintzen duen zerbitzua da. Horri lotutako zerbitzuak birplanteatu beharra ikusten da: besteen artean, tarifak, tiket motak edota TAO txartelarekin bidaia doan izatea aztertu beharko litzake.

TURISMO BULEGOA

Orioko turismo bulegoa Kale Nagusiaren 17. zenbakian kokatuta dago, Iturriaga Jauregian. Turismo bulegoa eta, aldi berean, interpretazio zentroa da eta bi funtzio betetzeak nahasgarri egiten du. Alde Zaharrean kokatua egotearekin, mesede egiten dio Alde Zaharrari. Jende eta bisitari gehien mugitzen dituzten eremuetatik (herri gunearen beheko partea eta hondartza) urrunago geratzen da, ordea, eta ikusgarritasuna galtzen du. Orioko Udalaren nahia turismo bulego plazara mugitzea da eta, horrek bisitariari turismo bulegoaren topogitea erraztuko die. Bisitariak turismo bulegotik igarotzeak herriaren eskaintzak ezagutzera emateko aukera ahalbidetzen dute.

Bisitariak turismo bulegotik igarotzeak herriaren eskaintzak ezagutzera emateko aukera ahalbidetzen dute.



EGOITZAK ETA BILERA GELAK

Orion bilera gelen eskaintza nabarmena da, Salatxo aretoaz gain, Villa Antilla hotelak, Orioko kultur etxeak, Arraunetxeak eta Bodega Katxiñak bilera gelak eskaintzen dituzte. Egun, solasaldi eta enpresetako jardunaldiak egiten dira baztuetan eta horri etekina ateratzeko aukerak ditu Oriok.

EGOITZAK ETA BILERA GELAK		
<p>ORIO</p> <p>HOTEL & THALASSO VILLA ANTILLA HOTELA Hondartza Bidea 1 T. 943 832 034 reservas@villaantilla.com www.hotelvillaantilla.com Bilera gela 350 pax</p> <p>SALATXO GELA T. 943 830 346 kultura@orio.eus Bilera gela 30 pax</p>	<p>ORIOKO KULTUR ETXEA Eusko Gudari 26 T. 943 134 409 kultura@orio.eus Bilera gela 90 pax</p> <p>BODEGA KATXIÑA Ortzaika auzoa ,20 T. 606 376 793 info@bodegakatxina.com www.bodegakatxina.com Bilera gela: 10,20,50,100 eta 300pax.</p>	<p>ARRAUNETXE Geltoki, z/g/Geltoki s/n T. 679 417 764 kirola@orio.eus www.arraunetxe.eu Bilera gela 348 pax</p>

Irudia 19: Orioko egoitzak eta bilera gelak (kostaldea.eu)

TURISMO ARLOKO ZERBITZU PROFESIONALAK

Orion Begi Bistan da turismo arloko zerbitzu profesionalak eskaintzen dituen enpresa bakarra. Zerbitzu horien eskaintza Arraunetxetik egiten du.

ZERBITZU PROFESIONALAK		
<p>ORIO BEGI BISTAN - Arraunetxe Geltoki auzoa z/g, T. 657 794 677 info@begi-bistan.com www.begi-bistan.com</p> <p>ZARAUTZ EXPERIENTZIAK Nafarroa kalea 1-A T. 618 775 820 experientziak@gmail.com www.experientziak.com</p>	<p>ZARAUTZ KULTURLAN BI T. 943 131 418 kulturlanbi@kulturlanbi.com www.kulturlanbi.com</p> <p>ZUMAIA BQD BASQUE DESTINATION Erribera 5 T. 943 32 63 06 info@basquedestination.com www.basquedestination.com</p>	<p>ZARAUTZ ARAZI Nafarroa kalea, 37 B T. 943 833 641 arazi@arazi.eus www.arazi.eus</p> <p>ZUMAIA BEGI BISTAN Itzurun zuhaizbidea 1 T. 657 794 677 info@begi-bistan.com www.begi-bistan.com</p>


Irudia 20: Orioko Turismo alorreko zerbitzu-profesionalak (kostaldea.eu)



Begi Bistan enpresak eskaintzen dituen zerbitzuak ez daude kanpo bisitarietara bideratuta soilik eta, bertakoek ere parte hartu dezakete. Pertsona guztiei bideratutako jarduerak eskainita natura, kultura eta aisialdia lotzen dituzte.

Orio eta bere ingurune naturala arraunaren bitartez ezagutzea ahalbidetzen du Begi Bistanek. Horretarako, Orio Arraun Elkarteko traineruak eta Arraunetxearen punta-puntako azpiegiturak dituzte. Lagun artean zein familian, Oria ibaian arraunean egin, arraunlari sentitu eta, aldi berean, herria ezagutzeko aukera dago.

Txalupa txikietan nabigagarria da Oria ibaia Aginatik aurrera. Marearen laguntzaz erraz osa daitezke herrigunera dauden bost kilometroak. Paisaia natural ikusgarriak, balio natural handiko inguruneak eta itsasadarraren historia familian edo lagunartean gertutik ezagutu daitezke Begi Bistanek eskaintzen dituen gainerako jardueren bitartez. Eskaintza honen existentzia birplanteatu eta indartzeko beharra aurreikusten da.



Irudia 21: Begi Bistanen jarduera katalogoa (Begi Bistan)


ESPERIENTZIA GASTRONOMIKOAK

Gastronomia Orioren bereizgarri eta garrantzi handiko baliabidea izanik, ez da gehiegi ustiatzen.

Testuinguru honetan, gastronomiari lotuta Bisigu Festa aipatu behar da berriz. Ospakizun honek herriko plaza parrila handi batean bilakatzen du eta bisigua Orio estilora prestatzeko sekretu guztiak mahai gainean jartzen ditu, herriko parrileroen eskutik. Oriora hurbiltzen den pertsona orok bisigua orio estilora prestatutako otorduez gozatzeko aukera izaten du eta bisiguak parrilan nola erretzen diren zuzenean ikusi.

Bestalde, Begi Bistanek arraun-potea egiteko aukera eskaintzen die bezeroei. Jarduera hau hain ezaguna den poteoa arraunarekin konbinatzean datza, taberna ezberdinen arteko ibilbidea osatuta arraunean eginda. Arraun potearen kudeaketan interesgarria izan daiteke bertako ostalaritza establezimenduekin sortu daitezkeen sinergiak.

*Bere garaiko parrila
izaera berreskuratzea
eta suspertzea indargune
izan daiteke.*



ORIOREN ESKAINTZA



- Orio herri bezela
- Azpiegitura
 - Irisgarritasuna/Garraioa
 - Aparkalekuak
 - Ostatuak
 - Merkataritza
 - Ostalaritza
- Egun dauden baliabide turistikoak
- Egun dauden zerbitzu turistikoak
- **Turisten Orioren inguruko bilaketan emaitzak**

5 TURISTEN ORIOREN INGURUKO BILAKETAN EMAITZAK



Orioren inguruko informazioa Interneten bilatzerakoan, webgune ezberdinetan, Orioren esentzia antzeman behar du erabiltzaileak. Oro har, Orioren historia, ingurune naturala, Erdi Aroko arkitektura eta bertako gastronomia aipatzen da.

Hala ere, aurretik ikusi dugun bezala, balio handiko beste hainbat baliabide ditu Oriok, bilaketetan agertu eta aipatzen ez diren baliabideak: arrauna eta kirola adibidez. Ondorioz, turistak antzeman dezake herri txikia izanik gauza gutxi egin daitezkeela eta inguruko beste herrien eskaintza zabalagoa dela. Orioren atributo estrategikoak identifikatu, diskurtso bateratu bat sortu eta herria ondo posizionatzea online eta offline gakoak izango dira etorkizun hurbilean.






Gastronomiari dagokionez, TripAdvisor plataforman Orioko hainbat jatetxe nabarmentzen dira balorazio altuarekin. Plataforma honen erabil-tzaileak antzeman dezakete kalitatez-ko eskaintza gastronomikoa dagoela herrian eta bertako jatetxeetako bate-ra joatea izan daiteke Oriora gertura-tzeko arrazoi nagusienetako bat.







Alojamenduei dagokienez, plataforma honetan Orioko alojamenduak posizionamendu txarra dutela ikus daiteke, izan ere, Orioko alojamenduak bilatzen egon arren Donostiako hainbat hotel eta ostatu ateratzen dira aurretik posizionatuta.



Jarduerei dagokienez berriz, eskaintza txikia dagoela antzeman dezake Interneteko erabiltzaile batek. TripAdvisorren bi jarduera turistikotik bakarrik ateratzen ditu argitara eta Minube plataformak Donostiako hainbat leku bisitatzeko gomendatzen du Orioren bilaketa egiten den momentuan.




Ondorioz, interneteko bilaketa egiten duenean erabiltzaile batek Orioko hainbat baliabide eta turismo arloari begira interesgarriak izan daitezkeen ezaugarriak ez dira aipatzen. Ostatuaren posizionamendua ere ez da ona eta Orioren egin daitezkeen jardueren eskaintza erabat urria dela antzematen da interneten.

Baliabide turistikoak eta jardueren posizionamendua indartzeaz gain, interesgarria litzake interneten argi adieraztea Oriok eskaintzen dituen esperientziak inguruko udalerriek eskaintzen dituztenen osagarri direla. Bisitariak beste udalerrien eskaintzen dituztenekin konbinatzera gonbidatuta.

Baliabide turistikoak eta jardueren posizionamendua indartzeaz gain, interesgarria litzake interneten argi adieraztea Oriok eskaintzen dituen esperientziak inguruko udalerriek eskaintzen dituztenen osagarri direla.

The screenshot shows the website for 'Costa Vasca' (Getaria Orio Zarautz Aia Zumaia). The navigation menu includes: DESCUBRE COSTA VASCA, KOSTA GASTRONOMIKA, ALOJAMIENTOS, GASTRONOMÍA, ¿QUÉ HACER?, ¿QUÉ VER?, ESPACIOS NATURALES, PLAYAS, and PATRIMONIO MARITIMO. The main banner features a sailboat and the text 'La mejor forma de conocer Kostaldeia'. Below the banner, there are five columns for the towns: Getaria (MODA Y PATRIMONIO.CONTEXTOS), Orio (RED DE MUSEOS DE LA COSTA VASCA), Zarautz (ZONAS NATURALES. EL VALIOSO TESORO DE ZARAUTZ), Aia (FERRERÍA Y MOLINOS DE AGORREGI - VISITAS GUIADAS), and Zumaia (DESCUBRE EL GEOPARQUEI). There are also sections for 'Destacados de nuestra Costa' (featuring 'kosta GASTRONOMIKA'), '¿Qué es Costa Vasca?' (with a map), and a footer with various service categories like 'DESCUBRE COSTA VASCA', 'ALOJAMIENTOS GASTRONOMÍA', '¿QUÉ HACER?', '¿QUÉ VER?', 'GUÍAS Y PLANOS CONTACTO', and 'EUSKADI BASQUE COUNTRY'.

Orioren eskari potentziala



Hurrengo atalean Oriok gaur egun daukan turismoa eta turismo potentzialaren azterketa eraman da aurrera:

ORIOREN ESKARI POTENTZIALA

- Turismoa zenbakitan
- Turisten jarrera eta portaera ezberdinak
- Merkatu potentziala

1 TURISMOA ZENBAKITAN

Makro inguruneko analisisian aipatu bezala, etorkizunari begira eta COVID-19ak sortutako larrialdi egoera iritsi baino lehen, Munduko Turismo Erakundearen arabera, espero zen turismoa, mundu mailan, modu esponentzialean hazten jarraitzea.

Urola Kostako eskualdean ere turismoa hazi egin dela erakusten dute

datuek azken urteetan. Igoera handiena 2013 eta 2016 urteen artean eman zen eta, badirudi, nahiz eta turista kopurua hazten jarraitu, hazkundea moteldu egin dela azken urteetan. Hazkunde horretan bertako turismoak zeresan handia izan du.

URTEA	ORIO	ZUMAIA	GETARIA	ZARAUTZ	UROLA KOSTA
2013	9.994	30.487	23.574	26.930	90.925
2014	10.112	39.038	32.057	35.781	116.988
2015	11.771	41.244	37.578	43.386	133.979
2016	11.946	48.691	45.044	46.321	152.02
2017	10.589	43.531	45.571	46.158	145.849
2018	10.574			41.497	
2019	11.314				

Taula 5: Urola Kostako herriek jasotako turisten eboluzioa 2013-2019 (Itourbask)

Oriok ez du gainerako herriek bezainbesteko igoera nabarmenik izan, nahiz eta 2015. eta 2016. urteetan gorakada handienak nabaritu den. Edonola ere, horrek iradokitzen du baduela ahalmena bisitari gehiago erakartzeko.

Urola Kostako beste herriekin alderatuz, ikus daiteke Orio bisitatzen duten turista kopurua askoz ere txikiagoa dela eta inguruko beste herrietara bidaiatzea nahiago dutela bisitariak. Ondorioztatu daiteke, momentu honetan, Zumaia edo Getaria bezalako herriek erakargarriagoak direla bisitariarentzat eta Orio beste udalerrietako esperientzien konplementu gisa antzematen dela. Testuinguru honetan, inguruko beste herrien erakargarri-

tasuna altuago dela kontuan izanik, interesgarria litzateke beste herrietan ostatu hartzen duten bisitariak egun pasa Oriora gonbidatzea, nahiz eta helburuko herria ez izan, beraien egonaldian Oriora hurbildu eta bertan jarduera ezberdinak egiteko.


Inguruko beste herrien erakargarritasuna altuago dela kontuan izanik, interesgarria litzateke beste herrietan ostatu hartzen duten bisitariak egun pasa Oriora gonbidatzea, nahiz eta helburuko herria ez izan, beraien egonaldian Oriora hurbildu eta bertan jarduera ezberdinak egiteko.

Orioko Udalak dituen datuen arabera, Orioko establezimenduek okupazio tasa oso ona dute denboraldi altuan. Hotel eta ostatu kudeatzaileek diotenez, bi/hiru eguneko egonaldiak egiten ohi dituzte turistek. Halere, beraien esanetan, interesa erakusten dute Donostia eta eskualdeko beste herrietan (Zumai, Getaria, Zarautz).

Historikoki bisitarien gehiengoa Espainiako beste lurraldeetatik etorritakoak dira. Atzerritik etorritako bisitarien kopurua ere nabarmena da, batez ere, Frantziako, Erresuma Batuetako eta Alemaniako turistak. Euskal Herri mailan, gipuzkoarrak eta bizkaitarrak dira Orio gehien bisitatu duten turistak.

URTEA	2019		2018		2017		2016		2015	
Herritik	615	%5,4	640	%6	670	%6,3	1.193	%10	609	%5,2
Gipuzkoa	855	%7,6	921	%8,7	976	%9,2	1.116	%9,3	1.253	%10,6
EAE	1.067	%9,4	561	%5,3	775	%7,3	744	%6,2	927	%7,9
Espainia	4.899	%43,3	4.883	%46,2	4.728	%44,7	5.225	%43,7	5.491	%46,7
Atzerria	3.878	%34,3	3.569	%33,8	3.440	%32,5	3.668	%30,7	3.491	%29,7
Guztira	11.314	%100	10.574	%100	10.589	%100	11.946	%100	11.771	%100

Taula 6: Oriok jasotako bisitarien eboluzioa 2015-2019 jatorriaren arabera (Itourbask)



Irudia 22: Orio bisitatu duten bisitarien profila proportzioan 2015-2019 (Itourbask)



Irudia 23: Orio bisitatu duten Euskal herriko bisitarien jatorria 2015-2019 (Itourbask)

2019 urtean, zehazki, Oriok 11.314 bisitari jaso zituen. Kasu honetan ere bisitarien gehiengoa Espainiako beste lurraldetatik etorri ziren eta atzerritik etorritakoen artean estatu frantsesekoak dira gehiengoa.

Orioko Bisitariak 2019	
Herritik	615
Gipuzkoa	855
EAE	1.067
Nafarroa	468
Espainia	4.431
Andaluzia	352
Aragoi	369
Asturias	52
Balearrak	19
Kantabria	33
Gaztela Leon	318
Gaztela Mantxa	254
Katalunia	1.135
Valentzia	462
Extremadura	66
Galizia	92
Kanaria Uharteak	47
Errioxa	81
Madril	1.071
Murtzia	78
Besteak	2

Atzerria	3878
Alemania	578
Australia	96
Belgika	112
Kanada	85
Frantzia	1092
Herbehereak	240
Irlanda	114
Italia	173
Japonia	36
AEBak	241
Erresuma Batua	330
Besteak	781

---> Taula 6: Oriok jasotako bisitarien eboluzioa 2015-2019 jatorriaren arabera (Itourbask)

Oriora egun pasa etortzen direnak, orokorrean, inguruko udalerrietatik etortzen dira eta honek beraiekin epe luzeko harremanak eraikitzeke aukera eskaintzen du, Oriora itzuli eta bertan aisialdiko jarduerak egin ditzaten.

Kontuan hartu behar da datu hauek hotel eta ostatuen bitartez eskuratzen direla eta estatistika hauetatik kanpo gelditzen direla egun pasa Orio bisitatzen duten bisitariak. Oriora egun pasa etortzen direnak, orokorrean, inguruko udalerrietatik etortzen dira eta honek beraiekin epe luzeko harremanak eraikitzeke aukera eskaintzen du, Oriora itzuli eta bertan aisialdiko jarduerak egin ditzaten.


Orio bisitatzen dutenen jatorria kontuan hartuta, datuen arabera, ondorioztatu dezakegu EAE eta nafarrez gain, madrildarrak, katalanak eta frantsesak direla Orioko turismoaren helburuko target-a.

Adituen arabera, epe motzean, COVID-19ak eragindako egoera honek gertuko eta barne turismoa lehenetsi eta indartuko du kanpo turismoaren aurrean. Oriok bere erakargarritasuna ongi diseinatu eta promozionatu behar du xede taldea zein den kontuan hartuta.

2 TURISTEN JARRERA ETA PORTAERA

Turista eta bisitari guztiek ez dute portaera berdina eta faktore desberdinek eragiten dute beraien jarreran. Orokorrean hauek dira turistek eta bisitariak Euskal Autonomia Erkidegoan aurrera eramaten dituzten jarduerak:

G1.10.-Actividades realizadas por las y los turistas en su visita a Euskadi, 2017-2016. Respuesta múltiple



Irudia 24: Euskal Herria bisitatutako turistek aurrera eramandako jarduerak (Ibiltur 16-17, Euskal Turismo Agentzia)

Turistek, ordea, jarduera batzuei beste batzuei baino garrantzi handiagoa ematen diote. Ondorioz, bidaiatzeko motibazioaren arabera Euskal Turismo Agentziak mota ezberdinetako aisialdiko turismoak bereizten ditu: kostaldeko turismoa, hiri turismoa, touring-a, turismo gastronomikoa, natura eta abentura, nekazal turismoa edota kultura eta ekitaldiak.

G1.1.- Motivo principal de la visita a Euskadi, 2017-2016



Irudia 25: Turismo motak bidaiatzeko motibazioaren arabera (Ibiltur 16-17, Euskal Turismo Agentzia)

Touring-a, hiri turismoa, kultura eta ekitaldiekin erlazionatutako turismoa euskal hiriburuetan kontzentratzen da gehien. Kasu honetan, turistak denbora labur batean saiatzen dira hiri eta bertako eskaintza ezagutzeko, 2 eta 4 egun bitartean. Turista eta bisitariak herrietan ostatu denbora laburrean egiten dute eta, hori horrela, bidaiaren plangintzak eta aurrera eramango diren jardueren optimizazioak garrantzia handia dauka. Zentzu horretan, turistek aurreikusita ez zituzten lekuak bisitatu eta jarduerak berriak aurrera eramateko malgutasun txikiagoa dute eta zaila da hiriburuetatik atera eta inguruko beste herri edo hiriak bisitatzeko.

Hiri turismoa ez bezala, Oriorentzat interesgarria da kostaldeko turismoa da eta turista horiek egiten dituzten jarduerak aztertuz gero, Oriok hauen beharrak eta nahiak asetzeko gaitasuna eta baliabideak ditu:


Esan bezala, kostaldeko turismoaren hautua egiten duten bisitari eta turistek kostaldean deskantsatzea dute helburu nagusi eta, horretarako, kostaldeko herrietara bidaiatzen dute. Aipagarria da, Euskal Turismo Agentziaren arabera, kostaldeko batz besteko egonaldiak 7 egun ingurukoak direla hurrengo irudian ikus daitekeen bezala.

G1.3.-Atribuciones asociadas al motivo principal de turismo costero, 2017-2016. Respuesta múltiple



Irudia 26: Euskal Herri mailan kostaldeko turismoa egiten duten turistek aurreraera emandako jarduerak (Ibiltur 16-17, Euskal Turismo Agentzia)

G6.12.-Media de pernoctaciones realizadas en Euskadi según destinos turísticos y tipo de alojamiento donde pernoctan las y los turistas, 2017-2016




Irudia 27: Batz besteko egonaldia ostatu mota eta bisitatutako lekuaren arabera Euskal Herri mailan (Ibiltur 16-17, Euskal Turismo Agentzia)

Orioko bisitarien kopurua txikia da inguruko beste kostaldeko eta eskualdeko herriekin alderatuta eta, esan daiteke, beste udalerrri horiek erakargarriagoak direla gaur egun turistentzat. Hala ere, nahiz eta turistak beste herrietan egon, bidaian zehar aurreikusi ez ziren jarduerak aurrera eramateko eta beste udalerrriak bisitatzeko malgutasun handiagoa dute turista hauek beraien egonaldi luzeen ondorioz. Turismo mota honek aukera paregabea eskaintzen dio Oriori, komunikazio estrategia egoki baten bitartez, beste herri horietan dauden turistak eguna Orion pasatzeko gerturatzea eta bertan jarduera ezberdinak aurrera eramatea lortzeko, bertako turismoa eta herrian jarduera ezberdinak mar txan jarrita.

Bidaia egiteko motibazioaz gain, turisten jatorriak ere badu bere eragina turisten portaeran. Jatorriak bi arlo nagusietan du eragina: garraioa eta informazio iturrien erabilera.

6.8.-Medio de transporte principal utilizado por los y las turistas para llegar a Euskadi según su lugar de residencia, 2017-2016



Irudia 28: Euskal Herria bidaiatu duten bisitarien erabilitako garraioa (Ibiltur 16-17, Euskal Turismo Agentzia)

GARRAIO ONA


Turisten jatorriak beraien bidaiatzeko moduan eragiten du. Ibilturreko datuen arabera, inguruko herrialde eta lurraldeetatik etortzen diren turistak kotxe pribatua erabiltzen dute gehienbat Euskal Herrira iristeko, urrutitik datozenak berriz hegazkina erabiltzen dute normalean.

Euskal Turismo Agentziaren datuen arabera EAE-ko herri, hiri eta txoko ezberdinetara iristerako orduan turistek garraio mota ezberdinak erabiltzen dituzte. Oro har, turistek, auto pribatua erabiltzen dute eta bigarren maila batean hegazkina eta garraio publikoa.

Nabarmentzekoa da Estatu Batuetatik datozen bisitariak kotxeak alokatzen dituztela beren desplazamenduak egiteko. Alemania, Erresuma Batua, eta Italiako bisitarien kasuan ere alokairuko autoa erabiltzea ohikoa izaten da.

INFORMAZIO ITURRI EZBERDINEN ERABILERA

Informazio iturrien erabilera ere jatorriaren arabera modu batera edo bestera egiten da. Testuinguru honetan informazioa biltzeko prozesua hiru fasetan banatzen da bidaiatu aurretik eta bidaiari zehar:



Lehendabiziko fasean, turistek nora bidaiatu erabakitzen dute. Nora bidaiatu erabakitzeke orduan, batez ere, ezagunen eta lagunen iritziek dute eragina. Salbuespen gisa, italiarren eta estatubatuarren kasua dugu, turista hauek Internetetik eskuratzen dute informazioa eta bigarren maila batean uzten dute lagunengandik edo ezagunengandik datorren informazioa.

Zentzu horretan, artikulua eta txosten turistikoak oso tresna garrantzitsuetan bilakatzen dira atzerritik datozen bisitariarentzat. Hauek, espainiarrek ez bezala, informazio iturri horiek erabiltzeko ohitura dute.

JATORRIAREN ARABERA TURISTEK ERABILITAKO INFORMAZIO ITURRIAK

1. FASEA: Nora bidaiatu erabaki	
Turismo nazioanala 1) Lagunak eta ezagunak 2) Internet	Nazioarteko turismoa 1) Internet 2) Lagunak eta ezagunak 3) Artikulu eta erreportajeak

Bigarren fasean, nora bidaiatu erabaki, bidaiaren plangintza eta bidaiaren zehar zer egin erabakitzen da. Fase honetan nazioarteko eta Espainiako turistek erabiltzen dituzten informazio iturri motak antzekoak dira. Nahiz eta bertakoak eta atzerritarrek antzeko baliabideak erabili bidaiaren plangintzan zehar, bigarren hauek baliabide ezberdinen erabilera handiagoa egiten dute. Beste behin, bertako turisten artean lagunen eta ezagunen iritziak garrantzi handia dute bidaiaren plangintzan. Nazioartetik datozen turisten kasuan artikulu, txosten, gidak eta turismo alorreko profesionalen laguntza erabiltzen dute.

Azkenengo fasean turistak beraien helmuga turistikora iritsi direnean ematen da. Jatorriaren arabera turistek jarrera ezberdina dutela antzematen da bertan informazio gehigarria eskuratzeko.

Lehenik eta behin, espainiarrak ez bezala, atzerritik datozen turisten gehiengoak, bertan dagoenean, informazio gehigarria behar izaten dute. Salbuespen bakarra Frantzia da, bertako turisten erdia baino gutxiagok izan dute informazio gehigarriaren beharra beraien bidaiaren zehar.

Euskal Herrira datozen Alemaniako, Erresuma Batuko eta Italiako %70 baino gehiagok behar eta eskatzen dute informazio gehigarri hori.

Informazio osagarria eskatzerakoan, turistek ostatu eta hoteletan eskatzen dute informazio hori orokorren. Hori horrela, toki hauek dira informazio iturri nagusiak bai bertako bai atzerriko turistentzat. Bigarren informazio iturri ohikoena turismo bulegoak dira eta azkenik Internet.

JATORRIAREN ARABERA TURISTEK ERABILITAKO INFORMAZIO ITURRIAK

2. FASEA: Bidaiaren plangintza egin	
<p>Turismo nazioanala</p> <ol style="list-style-type: none"> 1) Lagunak eta ezagunak 2) Internet 	<p>Nazioarteko turismoa</p> <ol style="list-style-type: none"> 1) Internet 2) Lagunak eta ezagunak 3) Turismo Gidak 4) Turismo arloko profes.

Nabarmentzekoa da nazioarteko turistek ohitura handiagoa dutela turismo bulegoetara joateko bertako turisten artean baino. Aipagarria da, baita ere, Estatu Batuetako turistek

egiten duten interneten erabilera informazio osagarria eskuratzeko behin Euskal Herrian daudela.

JATORRIAREN ARABERA TURISTEK ERABILITAKO INFORMAZIO ITURRIAK

2. FASEA: Bidaiaren zehar informazio gehigarria eskuratu	
<p>Turismo nazioanala</p> <ol style="list-style-type: none"> 1) Alojamentuak 2) Turismo bulegoak 	<p>Nazioarteko turismoa</p> <ol style="list-style-type: none"> 1) Alojamentuak 2) Turismo Bulegoak 3) Internet

Laburbilduz, jatorriaren arabera momentu ezberdinetan turistek informazio iturri ezberdinak erabiltzen dituzte. Ondorioztatu daiteke lagun eta ezagunen iritziak oso garrantzitsuak direla, baina aldi berean, beharrezkoa dela Interneten posizionamendu egoki bat izatea informazio baliotsua modu zuzen eta simple batean eskaintzeko. Beste herrietan dauden turistak Oriora egun pasa etortzeko interesgarria litzake bertako ostatueta Orion egiten diren jardueren berri ematea, besteak beste.

3 ORIOREN MERKATU POTENTZIALA

Bukatzeko, orain arte esandako guztia kontuan izanik, horrela sailkatu daiteke Orioren merkatu potentziala:

ORIOREN MERKATU POTENTZIALA

TXANGOZALEAK: Oriora egun pasa etortzen diren bisitariak

- Orio inguruko udalerrietako biztanleak, Oriora esperientzia eta jarduera ezberdinetan parte hartzeko etorri eta maiz itzultzeko gaitasuna dutenak.
- EAE, Frantzia eta Nafarroatik esporadikoki egun pasa Oriora etorri eta maiztasun txikiagoarekin Orio bisitatzen duten txangolariak.
- Inguruko herrietako turistak, inguruko udalerrietako alojamenduetan egiten dute lo, beraien egonaldian zehar Oriora balio erantsiko esperientzia bila egun pasa hurbiltzen diren bisitariak.

TOKIKO SEGMENTAZIOA

Euskal Herriko zazpi probintzietan dugu gure gertuko merkatu potentziala. Epe motzean, COVID 19-aren ondorioak direla eta, salmenta estrategia zehatzak bideratu beharko lirateke gure merkatu horretara.

Frantzia eta espainiar estatutik datozen turistak beste mezu batzuekin erakarriko dira.

TURISTAK: Orion lo egiten duten bisitariak (2019 urtean 11.314 persona)

• Gipuzkoa:	% 7,6		
• EAE:	% 9,4		
• Nafarroa:	% 4,13		
• Espainia:	% 39,16	→	Katalunia eta Madrid batez ere
• Atzerria:	% 34,3	→	Frantzia, AEB, EB eta Alemania batez ere

*

* Beharrezkoa jatorriaren arabera bereiztea, beraien portaeraren arabera, komunikazio estrategia eraginkor bat diseinatu ahal izateko



Orioren argazki orokorra

MERKATARITZA

- > 74 establezimendu
- > Aukera zabala eta anitza

EUSKARA

Arnasgunea, euskaraz bizi den eta bizirik duen herria

ERAIKINAK

- > Mutiozabal
- > Kofradia
- > Arraunetxea
- > Salatxo aretoa
- > Kultur Etxea
- > Villa Antila (bilera gelak)
- > Katxiña (bilera gelak)

GASTRONOMIA

- > Parrila
- > Txakolina
- > Sagardoa

Orioren argazki orokorra

OSTALARITZA

- > 41 jatetxe eta taberna
- > Aukera zabala eta egokia

KULTURA

Musika

- > Musikari asko eta anitzak

Historia

- > Alde Zaharra
- > Orioren historia
- > Done Jakue bidea
- > Interpretazio zentroa
- > ...

Artea

- > Izen handiko artistak

KIROLA

- > Oriotarren DNA-aren parte
- > Kohesio elementu
- > Arrauna
- > Atletismoa
- > Mendia
- > Futbola
- > Pilota
- > Eskubaloia
- > Parapentea
- > Herri Kirolak
- > Piragua
- > Surfa

Turismo baliabideak

NATURA

Anitza eta zabala

Ibaia

- > Mutiozabal
- > Moila
- > Sailkola
- > Motondo
- > Arrantza

Itsasoa

- > Hondartza

Mendi ibilbideak

- > Kukuarri
- > Itxaspe
- > Santiago bidea

ENBAXADOREAK edo ERREFERENTEAK

Beren alorrean punta-puntako izatea lortu dute:

- | | |
|--------------------|-------------------|
| > Jorge Oteiza | > Sandra Piñeiro |
| > Benito Lertxundi | > Sara Peña |
| > Maria Maestra | > Jon Salsamendi |
| > Najat Kaanache | > Nadeth Agirre |
| > Asier Gozategi | > Patxi Danbolin |
| > Iñigo Manterola | > Victor Embil |
| > Anjel Lertxundi | > Kamel Ziani |
| > Iñake Irastorza | > Olatz Zugasti |
| > Oihana Blanco | > Imanol Alguacil |
| > Ainara Manterola | > Jon Azkue |
| > Jose Luis Korta | |

1.

baliabide turistikoa
anitz eta aberatsak

2.

inguruko
herrien
eskaintza
osagarri

3.

zer turismo
mota
nahi dugu?

4.

zer
behar du
Oriok?

bere izaerari helduz:

PRODUKTUAK SORTU

POSIZIONAMENDUA

DESESTAZIONALIZAZIOA

KONEXIOA eta KOHESIOA

Parte-hartzea eta ikerketa



ELKARRIZKETATUTAKO PERTSONA/ERAGILEAK

Orioko dinamizazio planaren lehen fasean herriaren diagnostiko orokor bat eman da aurrera: inguruaren analisi makroa, mikroa eta pertsona/eragile adituaren identifikazioarekin. Lehen fase horretatik Orioren erradiografia orokorra eskuratu da; ezaugarri demografiko, kultural, sozial, ekonomiko, politiko, turistikoa zein baliabideak mahai gainean jarrita.

Bigarren fasean parte hartzea eta ikerketa izan dira ardatz eta ekintza planaren eta estrategiaren definizioan ibilbide orri bilakatu da bertan jasotakoa. Alde batetik, 39 pertsona/eragile aditurekin aurrez aurreko bilerak egin dira. Bilera horietan profil ezberdineko pertsonak elkarrizketatu dira: ostalariak, merkataria, alojamenduak, zerbitzu enpresak, erakundeetako, udaleko zein herriko elkarteetako ordezkariak, itsas ondarean adituak eta herrigintzan aritzen diren pertsonak.



ELKARRIZKETAK: 39				
Bodega Katxiña	Xixario Erretegia	Orioko Barra	Itxaspe aterpetxea	Mirotza apartments
Balea jatetxea	Sarasua erretegia	Bodegon Joxe Mari		
Villa Antilla	Orioko Kanpina	Txanka Erreka hotela		Rikardo Uzkudun, Karkara aldizkariko lehendakaria
Txurruka aterpetxea	Anuska Esnal, Orioko alkatea	Bakar Oliden, turismo zinegotzia	Ana Priede, PSE-EE zinegotzia	Lourdes Salsamendi, UKUEko lehendakaria
Jose Angel Iparragirre, Orain plataformako zinegotzia	Xabi Iburguren, Kultura, Festak eta Gazteria zinegotzia	Adrian Garcia, turismo teknikaria	Raquel Arrieta, Turismo Bulegoa	Orio Arraun Elkartea
Arkupe Elkartea	Kaioa	Iñaki Iturain	Albaola	Xabier Alberdi, historilaria
Jon Maia	Unai Manterola, Orioko parrokoa	Jon Agirresarobe	Jabi Zabaleta, euskara teknikaria	Joxe Mari Aizega, Basque Culinary Center-eko zuzendaria
Esther Irigaray, Aquariumeko zuzendaria	Ibon Gaztañazpi	Zaharren Babeslekua	Begi Bistan	Gipuzkoako Parapente Federazioa
Iñigo Fernandez Orioko Surf Taldea	Jokin Eizagirre JokinDek			

Bestalde, bi ordu inguruko iraupena duten zuzeneko elkarrizketa horietan herriaren inguruko ikerketa sakona egin da eta herria hobetzeko proposamenak jaso. Elkarrizketa bakoitza lantaldean landu eta bateratze lana egin da; gerora lehiakortasun gakoan eta area estrategikoen identifikazioa egiteko. Hauek dira 39 elkarrizketa horietatik atera diren ideia nagusiak, elkarrizketatuaren perfila eta titular nagusiak kontuan hartuta:

ELKARRIZKETEN DEBOLUZIOA

ORIOKO UDALA 1

*“Kanpotik datozenak ez dira turista sentitu behar
Oriora etortzen direnean, oriotar bat gehiago baizik”*

*“Oriok kapritxo bat izan behar du, bere esentzia eta
nortasuna mantenduz”*

MERKATARITZA 1

*“Orioko jendea, Oriorekin haserre dago; ez dago
kooperatibismorik ez eta kohesiorik ere. Oriotarrok ez
dugu bertan kontsumitzen”*



ITSAS ONDAREA 1

*“Turismoari begirako Oriok duen eskaintza
potentziala herri gutxiek dute: itsasoa, ibaia,
hondartza, mendia, pasealekuak, historia eta istorioak”*

*“Naturak, arrantzak, baleak, arraunak eta Oteizak
desberdintzen gaitu”*

*“Oriok bere historia eta istorioez bustita dagoen herri
bat izan behar du”*

ORIOKO UDALA 2

“Orioren altxorra euskara da eta euskara erakartzeko zeharkako baliabidea da”

“Oriok bere izaera mantendu behar du, kultur ondarea balioan jarrita”

PERTSONA
ERREFERENTEA 1

“Orioren historia eta istorioak kontatzeko daude eta hori da egin behar duguna”

“Betiko inertzietatik atera eta gure esentzia kontatu behar dugu, oriotarrona”

“Orio, balezaleen herria”



HERRIKO
ERAGILEA 1

“Herriaren motore ekonomikoa izan behar du turismoak, argi dago herriak diru sarrerak behar dituela herritarren ongizatea bermatzeko”

“Ekimen kolektiboak egin behar dira, orain oso indibidualistak bilakatu gara”



MERKATARITZA 2

“Oriok herri bizia izan behar du”

“Turismoari dagokionean posizionamendua behar du Oriok”

OSTALARITZA 1

“Koordinazio falta handia dago Orioko turismo eragileen artean”

ELKARTEA 1

“Turismoa etorkizuneko industria izan daiteke eta horretan kolaboratzeko prestutasuna eta irekitasuna dugu”

“Arraunetxe norbaitek kudeatu behar du, kudeatzaile egoki batek eta aisialdi eta goi errendimenduko jardueretarako prestatu”



ENPRESA 1

“Parapentean ibiltzen den jendearentzat toki estrategikoa da Orio, Europa mailan eskatzen denari erantzuna eman diezaiokeen herria da”

“Parapentistak familiarekin bidaiatzen dugu eta parapentisten artean zabalkundea oso erraza da”

ORIOKO UDALA 3

“Nortasuna, errelatoa eraiki behar da eta herritarrekin partekatu”

“Oriok dena du baina transmisioa sustatu behar da”

“Lehenago Oriok zuen esentziaren errelatoa galdu da, berreskuratu beharra dago”

“Orioko leku, historia eta istorioak berreskuratu eta kontatzeko gai izan behar dugu”

ALOJAMENDUA 1

“Daukaguna aztertu eta berrerabiliko duen Orio bat nahi dut”

“Bideak berreskuratu oinezko zein bizikletentzat”

ORIOKO UDALA 4

“Orio ezagutzeko, asko arraskatu behar da. Orio txispak atera gabeko harribitxia da”

“Itsas ondarean interesa dutenak Oriora etortzea nahiko nuke”

ORIOKO UDALA 5

“Elkarlanean aritu behar dugu, baina inguruko herrietan ez dago informaziorik”

“Ez dugu errelatorik ez eta euskarrik Orio saltzeko. Historia, kultura, arrauna, natura... saltzeko asko dago”

“Nondik gatozen erakusten duen Orio. Izena eta izana. Hezkuntza ardatz”

ALOJAMENDUA 2

“Orio ez da saldu eta ez dakigu saltzen”

“Bisualki ez da herri salgarri bat, herri arrantzalea izan dela ikusi behar da eta orain momentuan oso urrun gaude”

“Oriok bere xarma izan behar du, irudia zaindu. Herri bizia eta nortasunarekin”

ALOJAMENDUA 3

“Euskarriak eta produktuak falta ditugu Orio saltzeko eta bertan gelditzera bultzatzeko”

“Potentzialitate asko dugu eta asko kontatzeko”

“Errioak aktiboa izan behar du, aktiboa. Orio bizia nahi dut”

OSTALARITZA 2

“Herri eta ingurune eder eta politean bizi gara, baina herria erakusteko zerbait falta dugu”

“Enpresentzat bideratutako ekitaldiak egiten ditugu eta bertako gauzak erakutsi nahi ditugu, zoritxarrez Orion ez dugu ezer erakusteko ”

“Barne turismo promozioa egin behar da”

PERTSONA
ERREFERENTEA 2

“80ko hamarkadako Orio berreskuratu nahiko nuke, bere esentzia eta nortasunarekin”

“Herritarrentzako espazioak sortu behar dira”

ALOJAMENDUA 4

“Familiak foko izaten jarraitzea nahi dut”

“Oriora datorrena ez dator soilik Orio bisitatzera”

ORIOKO UDALA 6

“Etorkizun hurbilean Orio modan egongo dela aurreikusten dut”

“10etik 2 herrira etortzea lortzen bada ni pozik, hori da helburua nik uste”

“Ibaian bizitza turistikoa, jendea ibilbideak egiten, piraguan, itsasontzian ikusi nahiko nuke”

PERTSONA
ERREFERENTEA 3

“Identitate indartsua duen herria, harrotasun herri bat existitzen da”

“Herri aktiboa, bizirik, gauzak eginez”

“Ostalaritza eskaintza desegokia duen herria da Orio, kanpora begira gauza gutxi erakartzen duena”

OSTALARITZA 3

“Kostako herri tradizional bezela posizionatzea nahiko nuke, herria eta hondartza lotu; jarduera eta ekitaldi gehiagorekin”

“Bisigu Eguna herritarrei ireki behar zaie”

“Historia, identitatea eta gastronomia ardatz dituen Orio”

ORIOKO UDALA 7

“Orio beste herriekin koordinazioan aritu behar da”

“Itsas ekonomia, lehen sektorea, jasangarritasuna”

“Itsasoari lotutako herri bat gara eta horri lotu behar gara. Bereziki arrauna dugu”

“Ibaiaren sustapena ikusten dut etorkizunean, bizitza duen erria”

OSTALARITZA 4

“Astetartean enpresariak izaten ditugu gehiago eta probetxua atera behar zaie”

“Etorkizunean herria aldatuta ikusten dut, jendea ordea ez da aldatuko”

“Alde zaharrean jendea galdu dadila nahiko nuke, kalexka horietan, historia eta istorio horietan”



ENPRESA 2

“Orio mapan kokatu behar da”

“Gure publikoa familiak, ikastetxeak eta enpresak dira”

“Orio itsasoarekin erlazionatuta ikusten dut, bertakoa harro sentitzen den errelato baten azpian. Itsas aisialdia gure motorra izan daiteke”



ORIOKO UDALA 8

“Orioko turismo eragileak elkarlanean jardun behar dugu”

“Ez dut euskarririk Oriotaz ezer kontatzeko”

“Parrilak desagertzeak beldurra ematen dit”

“Komunikazioa indartu behar dugu, kanpora eta barrura begira”

ORIOKO UDALA 9

“Kanpotik datorrena inbasore bezela ikusten dugu”

“Ez dakigu zer den Orio guretzat”

“Herriak hartu behar du indarra, hori da bidea”

“Ibaian mugimendua sortu behar da”

ELKARTEA 2

“Kokaleku paregabeen dagoen herri euskalduna da Orio”

“Orio bezalakorik ez dago munduan, ez dakigu zer dugun. Burua erlaxatu eta gorputza lasaitasunean mugitzeko leku paregabea da”

ELKARTEA 3

“Orio da errioko herria eta ez itsasoarena. Ibaia da gure elementu bereizgarria, inguruko herrietatik bereizten gaituena eta apustua izan behar du horrek”

“Herria prestatu behar da”

“Itsasoari beste era batera begiratuko dion herria; lanbide izatetik ondare gisa begiratu behar diogu. Izan ginena erakutsi eta aisialdirako izan behar du begirada horrek”

OSTALARITZA 5

“Parrilen jarraipena planifikatu behar da”

“Koordinazio eta komunikazio falta handia dago”

“Baliabideak ditugu, baina ez dago kontakizunik”



ITSAS
ONDAREA 2

“Orio ibai portua da beste herri batzuk izan diren bezala. Oriokoak aldiz badu berezitasun bat, ibaia zabalagoa dela eta horrek Orioren bereizgarri direnak ulertzea eragiten du”

“Orioren bereizgarriak itsas historiari dagokionean ontzigintza eta bale espedizioak dira”

“Itsasoak Oriori harremanak eman dizkio”

“Itsas jarduera ekonomikoari lotutako herri bat izan da Orio, industria auxiliar oso potentearekin”

“Beharrak eraginda Orio zenbait esparrutan aurrerakoiago aritu da, arraunean esaterako”

PERTSONA
ERREFERENTEA 4

“Orio karamelu bat izan daiteke askorentzat”

*“Leku pribilegiatu batean kokalekua duen herria da;
harreman zaileko herria: errezelo eta inbiri asko dagoena”*

*“Herria turismoari begira jartzeak beldur handia ematen
dit, herria herriari begira jarri behar da”*

*“Turismoak baporerik eta sarerik gabeko Orio batera
eramango gaitu. Orain galtzear daude baina turismoa
errematea izan daiteke”*

PERTSONA
ERREFERENTEA 5

*“Orio nortasuna duen herri euskalduna da:
Noriotasuna”*

*“Oriok kontatu behar du itsas historia eta hori
ere bisualki nabaritu behar da”*

*“Orion gakoa barne lana egitea da, herriak
barneratzea guztia”*



ITSAS
ONDAREA 3

*“Oriok izan duen onena aurkeztu behar du herrira,
pixkana-pixkana zirimiri moduan”*

*“Gure proiektuak ibaian gora eta behera ibiltzea
sustatuko du”*

“Orio-Pasaia uztartuko dira”



ELKARTEA 4:

*“Oriok nortasun handia eta identitate arazo sakona
du”*


Biziberritze plana

*Orioren balioa handitzea.
Orioren aberastasun sozial,
kultural eta ekonomikoa
areagotuta. Errioa, eukara eta
jasangarritasuna ardatz.*



1 DESAFIO NAGUSIA


Orioko Biziberritze Planaren hirugarren faseak, lehen fasean eta bigarren fasean jaso eta aztertutako informazioa du oinarri. Hori horrela, lehen ondorio nagusia da Oriok turismo plan estrategiko batetik haratago Orioko herria biziberritzeko plana behar duela. Orio ezin da kanpora begira jarri barnekoa prest eduki gabe.



Lehen urratsa eta funtsezkoa, herria prestatzea izango da, herritarrak norabide bereko errelato batekin harremandu, harrotasuna sentiarazi eta lau haizetara zabaldu. Horrek herria posizionatuko du. Orio birbalarizatu behar da eta hori egin ostean etorriko da kan-

po begirada; baina datozen hiru urteetan prisma pixkana-pixkana zabaltzea izango da helburua. Oriok herri bizi bat behar du, aktiboa. Oriotarrentzat atsegina den Orio. Herritarrak gustura sentituko direna.

Hori horrela, Orio Biziberritze Planaren misioa Orioren balioa handitzea izango da, Orioko aberastasun sozial, kultural eta ekonomikoa areagotuta. Eus-kara, erria eta jasangarritasuna ardatz.



ORIOKO BIZIBERRITZE PLANAREN POLITIKAREN ARDATZAK

DESAFIO NAGUSIA:

Orioren balioa handitzea. Orioren aberastasun sozial, kultural eta ekonomikoa areagotuta. Oriok dituen baliabideak ahalik eta ondoen aprobetxatuta, herriaren susperraldia bultzatzea; modu orekatu, parekidetsu eta jasangarrian.

ARDATZ ESTRATEGIKOAK:

erria, euskara eta jasangarritasuna

Hiru izango dira Orioko Biziberritze politikaren ardatzak, zeharka aplikatuko direnak Orioko Udaleko departamendu desberdinetan:

ERRIOA:

Orio errioko herria da. Ibaia da gure bereizgarria, inguruko herrietatik bereizten gaituena. Herria itsasoarekin lotzen duen zilbor-hestea da, herriari aberastasuna eta nortasuna ematen diona. Errelatoan eta posizionamenduan erria erdigunean jarriko da, itsas ondarearen eroale moduan.

EUSKARA:

Herri nortasunaren parte da hizkuntza eta modu horretara ezagutaraziko gara.

JASANGARRITASUNA:

Biziberritze Planaren politikek ondorengo balioak sustatuko dituzte:

- Naturarekiko errespetua
- Berdintasuna, gizarteratzea eta aniztasunarekiko tolerantzia
- Bertako tradizioaren eta kulturaren sustapena
- Gizateriaren kultur ondarea babestea
- Tratu egokia sektoreko langile eta enpresariei

POSIZIONAMENDUA:

Itsas ondaren oinarritutako eskaintza. Errelatoa erabiliko da produktuak sortzeko. Diskurtsoa integratuko da posizionamendua lantzeko eta kanpora komunikatzeko.

TARGET-A:

Herriko ekonomia zirkularra sustertuko duena

- Barrura begira
 - Oriotarrak
- Kanpora begira
 - Lehen fase batean Euskal Herriko zazpi probintziak
 - Bigarren fase batean Espainia (Madril, Andaluzia, Katalunia, Valentzia)

TURISMO FAMILIARRA:

Orioko baliabide turistikoak eta bisitarien profila kontuan hartuta, familiarekin bidaiatzen duten turista/txangozaleentzako helmuga.

- Profila: 22 urte arteko seme-alabak dituzten familientzako. Natura, benekotasuna, euskara, xarma, lasaitasuna, nortasuna duen herria, masifikaziotik kanpo egotea bilatzen duten familiei zuzenduta.

GASTRONOMIA TURISMOA:

Itsas ondareari erabat lotuta dago gastronomia, eta herriko nortasunaren ezaugarri bereizgarria erakusten du: parrilak. Parrilen irudia indartuko da, gastronomia turismoaren bereizgarri bezala. Itsasotik eratorritako produktuen eskaintza landuko da.

- Profila: 40-70 urte bitarteko lagun taldeak eta bikoteak.

TURISMO AKTIBOA:

Orioko balibide paisajistikoa aprobetxatuta, turismo aktiboa landuko da: ur ekintzak erriotan, natura ibilbideak, parapentea...

- Profila: 24-48 urte arteko lagun taldea (abentura bilatzen dute) eta

40-65 urteko lagun taldea (abentura pixkat bilatzen dute, dibertigarria, baina esfortzu eta arrisku handirik gabe)

SILVER TURISMOA:

Orioko itsas ondareari lotutako kultura eta bertako gastronomia landuko da.

- Profila: 60-80 urte bitarteko lagun taldeak eta bikoteak. Bidaia prestatuta ekarri ohi dute.



Oriko Biziberritze Planaren azken urratsa da ondorengo, 2020-2023 bitarteko ekintza plana. Aurre analistatik abiatu, herriko erreferente eta eragileekin hausnarketa egin eta erronkak, lan leerroak eta ekintzak zehaztea.

Ondorengoak dira datozen hiru urteetan Orioko herriak aurre egin beharko dien erronkak:

- Orioko errelatoaren sorrera
- Komunikazio integrala
- Zerbitzuen transformazioa eta atrakzio faktoreak
- Paisaia eta estetika bisuala
- Turismo kudeaketa-gobernantza eredu
- Kohesioa
- Finantziaketa

2 MARKA ETA LELOA

Herri marka bat sortu behar da.



1 Lelo: Erriotik, herria

Orio nortasun handiko herria da, identitaterik gabe, ordea; errelato sendo bat falta duena. Orioko Biziberritze Planean identifikatutako erronketan jasotzen da errelato berria sortzea eta, horri hertsiki lotuta dago marka sortzea, Orioko Udaleko logotik haratago herriak bere sentituko duena; herri marka bat. Marka berri hori zeharkakoa izango da eta Orioko Udalaren ekin-tza orotan presentzia izatea litzake proposamena; Erreterian, Ordizian... egin duten bezala. Markaren presentzia horrek identitate hori sortzeko bidea egiten lagunduko du. Eta, aldi berean Orioren inguruko idenfitikazio bat sortuko da.

Diagnostikoa eta hausnarketa estrategikoa ardatz hartuta marka eta lelo proposamenak jaso dira ondorengo orrietan. Behin marka hautatuta marka liburua garatuko da: logoaren erabilera, tipografia, koloreak, formak, aplikazioak... jasota. Markaren erabilerarako ibilbide orria izango da.

Orio errioko herria da. Ibaia da gure bereizgarria, inguruko herrietatik bereizten gaituena. Errioari bizkarra emateari utzi eta aurrez aurre jarri behar gara. Beste begi batzuekin begiratu. Prisma berri batetik. Orainalditik. Etorkizunetik. Iragana ahantzian utzi gabe.

Errioak izena eta izana eman dizkigu. Eta bizitza. Bizibideak jakintza. Errioak egin gaitu. Errioa. Herria. Oria eta Orio. Maitasun istorio bat. Gazia eta geza. Uretatik. Errio bazterretik. Egunak argitzen ikusten dituen.

Ezin konpreni daiteke Orio erriorik gabe; ezta errioa herririk gabe ere. Errioa herritik. Herritik errioa.

Errioak badu bidelagun leial bat. Itsasoa. Harreman eta mundura zabaltzeko bidea. Errioa jantzi eta erantzi egiten duena. Egunak hiltzen ikusten dituen. Historia eta istorioak. Bizimodua. Kultura. Jakintza. Nortasuna. Harrotasuna.

Erriotik sortu da herria. Errioak biziberrituko gaitu.

Orio.

Erriotik, herria.

3 EKINTZA PLANA

Ondorengoa da 2020-2023 urte bitarterako proposatzen den ekintza plana. Erronka bakoitza ardatz hartuta jarduera lerroak, ekintzak eta denbora lerroa zehaztu dira.






ERRONKA 1: ORIOKO ERRELATOAREN SORRERA

Helburua: Orioko herriaren elementu bereizgarriak ardatz hartuta herrian zehar barreiatuko den errelato eta marka komuna sortzea

Azalpena: Orioko herria nortasun handia duen herria da, baina identitate arazo sakona duena. Hori horrela, errelato eta marka berri honek identitate sendo bat eraikiko du eta herria zein herritarrak zipriztinduko ditu, norabide berean prisma jarriz.

JARDUERA LERROAK	EKINTZAK	DENBORA LERROA
1.1 JARDUERA LERROA: ERRELATOAREN BALOREAK ETA ELEMENTU BEREIZGA- RRIAK IDENTIFIKATU	<u>Ekintza 1.1.1:</u> Talde bat sortu errelatoa egiteko. Talde honetako partai- deak profil ezberdineko pertsonak osatzea aurreikusten da: herriko itsas historia gertutik ezagutzen duen historia- lariren bat, herriko itsas historiarekin zuzeneko harremana duen pertsona erreferentea, idazten abila den pertsona eta koordinatzaile bat.	2021 (02)
	<u>Ekintza 1.1.1:</u> Errelatoa sortu. Taldeak errelatoaren baloreak eta ele- mentu diferentzialak ardatz hartuta herria eta herritarrak zipriztinduko dituen errelatoa idatzi.	2021 (02)
1.2. JARDUERA LERROA: MARKA SORTU	<u>Ekintza 1.2.1:</u> Logoa eta leloa sortu. Errelatoaren baloreak eta elemen- tu bereizgarriak ardatz hartuta logo eta lelo berria sortu.	2021 (02)
	<u>Ekintza 1.2.2:</u> Estilo liburua sortu. Markaren erabilera zehazten duen ibildide orria: aplikazioak, adaptazioak, letra tipoa...	2021 (02)
1.3. JARDUERA LERROA: HERRIKO PERTSONA ERREFERENTEAK BALIOAN JARRI	<u>Ekintza 1.3.1:</u> Pertsonaiak identifikatu. Patxi Danbolin, Maria Maestra, Benito Lertxundi, Jorge Oteiza, Joanes Etxaniz, Angel Lertxundi, Vicente Segura...	2022 (1)
	<u>Ekintza 1.3.2:</u> Pertsona erreferenteen historia jaso.	2022 (1)
	<u>Ekintza 1.3.3:</u> Historia eta istorioen barne eta kanpo komunikazioa euskarri berezien bitartez.	2022 (1)



ERRONKA 2: KOMUNIKAZIO INTEGRALA

Helburua 1: Orioko herriaren errelatoa eta ibilbide orria herriak eta herritarrak barneratu, sinetsi eta beren arloetan integratzea.

Helburua 2: Euskal Herriko target-ari Orioko herriaren posizionamendu berria helarazi.

Helburua 3: Espainia (Madril, Katalunia, Andaluzia, Valentzia...) eta Frantziako target-ari Orioren posizionamendu berria helarazi.

Azalpena: Orioko herriaren errelato, ibilbide eta posizionamendu berria zehaztuta garrantzitsua izango da, lehenik eta behin, barrura begira herria prestatzea; herritarrei nora begira posizionatu nahi den helaraztea eta beraiekin batera bide honetan aurrera egitea. Gure errioreen ibilbidearen uberan sartzea. Horretarako, barne komunikazio plana garatuko da eta aurrerago kanpo komunikazio plana, Euskal Herria, Espainia eta Frantziako bisitarietara mezuak egokituta, Orioren posizionamenduaren berri jasoz.

BARNE KOMUNIKAZIOA: herrira begira. Xede taldea Orioko biztanleria

JARDUERA LERROAK	EKINTZAK	DENBORA LERROA
2.1. JARDUERA LERROA: ESTRATEGIA DIGITALA	Ekintza 2.1.1: Orio turismo webgunea berriztatu. Orioko errelato eta posizionamendua berria jasotzen duen webgunea birdiseinatu eta Orioko Udalaren webgunean txertatu behar den hausnartu.	2022 (1)
	Ekintza 2.1.2: Sare sozialen kudeaketa eta estrategia finkatu. Zein sare sozialetan dago Orioko Udala egun presente? Zeinetan egotea komeni da? Nola posizionatuko gara sare sozial bakoitzean?	2021 (2)
2.2. JARDUERA LERROA: ERRELATOAREN HEDAPENERAKO EUSKARRIAK SORTU	Ekintza 2.2.1: Errelatoaren transmisiorako dokumentalaren ekoizpena. Zer izan garen, zer garen eta etorkizuna nondik marraztu behar den jasotzen duen ikus-entzuzkoa egin. Historia, istorioak ardatz. Orioren ezagutza lau haizetara zabalduz.	2022 (2)
	Ekintza 2.2.2: Egunkaria. Herritarren artean maiztasun jakinarekin banatuko den formatu fisikoko euskarria. Errelatoa, historia eta istorioak jasoko ditu.	2021 (2)
	Ekintza 2.2.3: Ikastetxeetarako unitate didaktikoak sortu. Transmisioa bermatu dadin ikas materialak sortu herria zer izan den, zer den eta zer izango den ulertzeko.	2022 (1)
	Ekintza 2.2.4: Errioa, itsasoa eta itsas jardueren inguruko abestiak jasotzen dituen herriko artisten diskoa.	2022 (2)
	Ekintza 2.2.5: Erakusketa ibiltaria. Herriko puntu ezberdinetan ikusgai egongo den eta zer izan garenaren erakusle den argazki, elementu, obra... jasotzen dituen erakusketa.	2022 (2)
	Ekintza 2.2.6: Euskarri bereziak herritik. Errelatoa eta posizionamendu berria jasotzen duen eta beti presente dagoen euskarria. Horma-irudia edota herriko puntu estrategikoetan historia eta istorioak azaleratzea.	2022 (1)

JARDUERA LERROAK	EKINTZAK	DENBORA LERROA
2.3. JARDUERA LERROA: ALIANTZAK ERAGILE EZBERDINEKIN ERRELATOA HEDATZEKO	<u>Ekintza 2.3.1:</u> Aliantzak Karkara aldizkariarekin. Urtean zehar, hilero, erreportaje bat kaleratu daiteke errelatoarekin harreman zuzena duena.	2022 (1)
	<u>Ekintza 2.3.2:</u> Aliantzak ikastetxeekin. Orioko Herri Ikastola, Zaragueta Herri Eskola, Maria Maestra haurreskola eta Zingirarekin elkarlana.	2022 (1)
	<u>Ekintza 2.3.3:</u> Aliantzak kirol taldeekin. Arraun, pelota, futbol, eskubaloi, softball, atletismo, mendi, saskibaloi... elkarteekin elkarlana.	2022 (1)
	<u>Ekintza 2.3.4:</u> Aliantzak ostalaritza, merkataritza, alojamendu eta zerbitzu turistikoekin.	2022 (1)
	<u>Ekintza 2.3.5:</u> Soziedade gastronomikoekin aliantzak.	2022 (1)
	<u>Ekintza 2.3.6:</u> Kultur eragileekin aliantzak.	2022 (1)
2.4. JARDUERA LERROA: PROMOZIO KANPAINA ERRELATOAREN HEDAPENERAKO	<u>Ekintza 2.4.1:</u> Moskeo kanpaina. Herriko puntu estrategikoetan (zubian, herri sarrera irteeretan...) mezuak helaraziko dira tantaka eta astebezez egongo dira bertan. Herri-tarrei zer pentsatua emango diete mezu horiek. Adibidez: errioiari bizkarra emateari utzi behar diogu.	2022 (2)
	<u>Ekintza 2.4.2:</u> Etxeetara bidalketa. Etxeetara bidalketa. Errelatoa, historia eta istorioak jasotzen dituen egunkaria etxeetara banatuko da.	2021 (2)
2.5. JARDUERA LERROA: EKITALDIAK	<u>Ekintza 2.5.1:</u> Errelato eta posizionamendu berriaren aurkezpen ekitaldia. Historia, istorio eta posizionamenduaren berri emango duen aurkezpen ekitaldia. Aurkezpen ekitaldia pertsona erreferenteak gidatuko dute.	2021 (2)
	<u>Ekintza 2.5.2:</u> Balearen Eguna. Balearen Egunaren maiztasuna aztertu eta errelato eta posizionamendu berria bertan integratu.	2022 (1)
	<u>Ekintza 2.5.3:</u> San Nikolas Jaiak. Errelato eta posizionamendu berria bertan integratu.	2022 (2)
	<u>Ekintza 2.5.4:</u> San Pedro Jaiak. Errelato berria bertan integratu.	2022 (1)
	<u>Ekintza 2.5.5:</u> Traineru jeitsiera. Errelato eta posizionamendu berria integratu.	2023
	<u>Ekintza 2.5.6:</u> Bisigu Eguna. Bisiguaren eguna barrura begira, herritarrei begira jarri; pixkana berea den festa sentitu dezaten. Errelato eta posizionamendu berria bertan integratu.	2022 (1)

ERRONKA 2: KOMUNIKAZIO INTEGRALA

KANPO KOMUNIKAZIOA: Xede taldea Euskal Herriko biztanleak eta bigarren fase batean Espainia (Madril, Katalunia, Andaluzia, Valentzia...) eta Frantzia

JARDUERA LERROAK	EKINTZAK	DENBORA LERROA
2.6. JARDUERA LERROA: PROMOZIO EUSKARRIAK	<u>Ekintza 2.6.1: Bideoa.</u> Orioko esentzia eta planak erakusten dituen ikus entzunezkoa.	2021 (1)
	<u>Ekintza 2.6.2: Eskuorria.</u> Orion egin daitezkeen planak jasotzen dituen euskarri fisikoa.	2022 (1)
2.7. JARDUERA LERROA: MEDIO PLANA	<u>Ekintza 2.7.1: Euskadi Irratia.</u> Urtean zehar kuinak Orioren esentziaren berri emateko.	2022
	<u>Ekintza 2.7.2: Berria.</u> Online eta offline publizitatea; Orioko ibilbide turistikoaren berri ematen duten pop up leihoak.	2022
	<u>Ekintza 2.7.3: Gara.</u> Online eta offline publizitatea; Orioko ibilbide turistikoaren berri ematen duten pop up leihoak.	2022
	<u>Ekintza 2.7.4: Diario Vasco.</u> Online eta offline publizitatea; Orioko ibilbide turistikoaren berri ematen duten pop up leihoak.	2022
	<u>Ekintzak 2.7.5: Noticias de Gipuzkoa.</u> Online eta offline publizitatea; Orioko ibilbide turistikoaren berri ematen duten pop up leihoak.	2022
	<u>Ekintza 2.7.6: ETB1.</u> Orioko esentzia eta planak erakusten dituen spot-a.	2022
	<u>Ekintza 2.7.7: Teledonosti.</u> Orioko esentzia eta planak erakusten dituen spot-a.	2022
	<u>Ekintza 2.7.8: Aldizkariak.</u> Real Sociedad, Athletic Club, Osasuna, Alavés, Eibar, Bidasoa, Bera Bera... aldizkarietan iragarkiak.	2022
	<u>Ekintza 2.7.9: Bertsolari Txapelketak.</u> Orioko esentzia eta planak erakusten dituen spot-a.	2022
	<u>Ekintza 2.7.10: Sudouest.</u> Online eta offline publizitatea; Orioko ibilbide turistikoaren berri ematen duten pop up leihoak.	2022
2.8. JARDUERA LERROA: PRENTSA KABINETEA	<u>Ekintza 2.8.1: Mutiozabal.</u> Proiektuaz informatzeko hedabideekin lana, bisitari potentzialak erakartzeko.	2022 (1)
	<u>Ekintza 2.8.2: Kofradia.</u> Proiektuaz informatzeko hedabideekin lana, bisitari potentzialak erakartzeko.	2023 (1)
	<u>Ekintza 2.8.3: Etxeluze.</u> Proiektuaz informatzeko hedabideekin lana, bisitari potentzialak erakartzeko.	2023 (1)
	<u>Ekintza 2.8.4: Arraunetxe.</u> Proiektuaz informatzeko hedabideekin lana, erabiltzaile potentzialak erakartzeko.	2022 (2)

JARDUERA LERROAK	EKINTZAK	DENBORA LERROA
2.9: JARDUERA LERROA: ALIANZAK	<u>Ekintza 2.9.1:</u> Elkarlana Tour operadoreekin.	2022 (1)
	<u>Ekintza 2.9.2:</u> Elkarlana Turismo agentziekin.	2022 (1)
	<u>Ekintza 2.9.3:</u> Elkarlana merkatari, ostalari, alojamendu eta zerbitzu turistikoeekin.	2022 (1)
	<u>Ekintza 2.9.4:</u> Elkarlana Gipuzkoako museoekin.	2022 (1)
	<u>Ekintza 2.9.5:</u> Elkarlana Albaolarekin.	2021 (1)
	<u>Ekintza 2.9.6:</u> Elkarlana Aquariumekin.	2022 (1)
	<u>Ekintza 2.9.7:</u> Elkarlana Materrekin.	2022 (1)
	<u>Ekintza 2.9.8:</u> Enbaxadoreak. Orioko pertsona erreferenteekin lankidetzara harremana sortu.	2022 (1)
	<u>Ekintza 2.9.9:</u> Senidetzak. Egun sortuta daudenak aprobetxatu eta berriak sortu (Castellers, Asturiasko Caldas herria, Tolosa...) metodologia zehatz batekin.	2022 (1)
2.10 JARDUERA LERROA: EKITALDIAK	<u>Ekintza 2.10.1:</u> Bisigu Eguna. Errelato eta posizionamendu berria integratu eta atrakzio elementu bezala erabili.	2022 (2)
	<u>Ekintza 2.10.2:</u> Balearen Eguna. Errelato eta posizionamendu berria integratu eta atrakzio elementu bezala erabili.	2022 (1)
	<u>Ekintza 2.10.3:</u> San Pedro jaiak. Errelato eta posizionamendu berria integratu eta atrakzio elementu bezala erabili.	2022 (1)
	<u>Ekintza 2.10.4:</u> San Nikolas jaiak. Errelato eta posizionamendu berria integratu eta atrakzio elementu bezala erabili.	2022 (1)
	<u>Ekintza 2.10.5:</u> Feriak. Orioren errelatoaren eta posizionamenduaren berri eman maila lokaleko, estatuko eta nazioarteko ferietan.	2022

errioaren EKOSISTEMA

ERRONKA 3: ZERBITZUEN TRANSFORMAZIOA ETA ATRAKZIO FAKTOREAK

Helburua 1: Oriok duen potentzialitatea aprobeztatzu berrura eta kanpora begirako zerbitzuak egokitu eta birplanteatu eta lankidetzak sortu (elkar elikatuz).

Helburua 2: Orioren potentzialitatea eta elementu bereizgarriak ardatz hartuta produktu turistiko berriak sortu.

Helburua 3: Orioko atrakzio faktoreak azaleratu eta potentziatu.

Azalpena: Oriok potentzialitate handia du: historia, istorioak, kultura, arrauna, natura, itsasoa, errioa... Elementu horiek guztiak azalertzeko unea da eta, horretarako, egun dituen zerbitzuak egokitu eta produktu berriak sortu behar ditu. Haratago, gainera, atrakzio faktore berriak barne hartuko ditu datozen urteetan: plaza berria, herriaren bihotzaren peatonalizazioa, Mutiozabal... Atrakzio faktore berri horiek eta ahantzia gelditu direnak (Goiko kale, eliza...) azalerratu, kohesionatu eta potentziatu behar dira; merezi duten garrantzia eman eta errelatu eta posizionamendu berriekin guztiz harremandu. Proiektu berri orok errelatu eta posizionamendu berri hori integratu behar du, norabide berean doan ekosistema sortzeko. Finean, Orio balioan jartzeko.

JARDUERA LERROAK	EKINTZAK	DENBORA LERROA
3.1 JARDUERA LERROA: ZERTIFIKAZIO SISTEMA SORTU (ZIGILU BAT) TURISMOAREKIN HARREMANA DUTEN ZERBITZUENTZAT (MERKATARITZA, OSTALARITZA, ALOJAMENDUAK, ZERBITZU TURISTIKOAK) "ERRIOAREN EKOSISTEMA"	Ekintza 3.1.1: Zertifikazio organoa definitu. Zertifikazio sistema definitzeaz arduratuko den taldea osatu. Talde horretan, entitate ezberdinak egon behar dute ordezkatuta.	2023
	Ekintza 3.1.2: Kriterioak definitu. Zertifikazioa eskuratzeko eta kentzeko beharrezko baldintzak: paisaia linguistikoa, bisuala...	2023
	Ekintza 3.1.3: Onurak definitu. Zertifikazio sisteman definitutako baldintzak betetzen dituztenek zein onura izango dituzte?	2023
	Ekintza 3.1.4: Euskarri konkretu bat sortu. Zertifikazio sistemako baldintzak betetzen dituela azalerraten dituen euskarria. Honek aldi berean kohesioa eragingo du, zertifikazioa duten guztiek elementu komun bat izango dutelako.	2023
	Ekintza 3.1.5: Sentsibilizazio plana. Zertifikazio sisteman sartzeak dituen onurak komunikatu.	2023
	Ekintza 3.1.6: Formakuntza beharren diagnosis. Turismoarekin harremana duten zerbitzuen indarguneak potentziatu eta ahuleziak identifikatu.	2023
	Ekintza 3.1.7: Formakuntza eraldatzaile praktikoa. Indarguneak potentziatu, ahuleziak eta gabeziak ezabatzeke formakuntza praktikoa eskaini.	2023
	Ekintza 3.1.8: Jarraipena. Maiztasun jakinarekin, zertifikazio sistemako baldintzak betetzen direnaren berrikuspina eta ahulezien identifikazioa.	2023

JARDUERA LERROAK	EKINTZAK	DENBORA LERROA
3.2 JARDUERA LERROA: DONEJAKUE	<u>Ekintza 3.2.1:</u> Eragileak identifikatu. Ostalaritza establezimenduak, alojamenduak, eliza...	2022 (1)
	<u>Ekintza 3.2.2:</u> Lan taldea sortu. Donejakue bidea Orion indartzeko lankidetzeta sortu.	2022 (1)
	<u>Ekintza 3.2.3:</u> Produktuak /eskaintza espezifikoa sortu. Erromes menua, eliza irekita mantentzea...	2022 (1)
	<u>Ekintza 3.2.4:</u> Komunikazioa lana. Herri barneko seinaletika eta online presentzia (Donejakue bideko webgune, blog...), turismo bulegoan.	2022 (1)
	<u>Ekintza 3.2.5:</u> Xacobeo 2021 urtearen harira senidetzak. Oviedo edo bestelako herri batekin senidetzeta sortu eta produktu komun bat sortu elkarren promoziorako.	2022 (1)
3.3 JARDUERA LERROA: ARRAUNETXEA	<u>Ekintza 3.3.1:</u> 2021-2024 plana. Marko estrategikoaren identifikazioa.	2022
	<u>Ekintza 3.3.2:</u> Antzeko teknifikazio zentroak ezagutu. Erreferentzialtasuna duten estatuko eta nazioarteko goi mailako zentrozen ereduak identifikatu.	2022
	<u>Ekintza 3.3.3:</u> Negozio lana. Jarduera autosostengarria bilakatu.	2022
3.4 JARDUERA LERROA: TURISMO BULEGOA	<u>Ekintza 3.4.1:</u> Tokiz aldatu, puntu estrategikoan kokatu. Plaza inguruan edo/eta hondartzan (tenporalki).	2022 (1)
	<u>Ekintza 3.4.2:</u> Orioko puntu neuralgikoa bilakatu. Herriko ekitaldien salmenta puntua, arreta zerbitzua...	2022 (1)
	<u>Ekintza 3.4.3:</u> Paisaia bisuala. Turismo bulegoaren dekoazioak bat egin behar du Orioko errelatoarekin, herriko puntu neuralgikoa baita, bisitariak jasoko dituen lekua.	2022 (1)
	<u>Ekintza 3.4.4:</u> Pertsonalaren trebakuntza plana. Bertako langileek herriko produktu/zerbitzu guztiak kontrolatu behar dituzte.	2022 (1)
	<u>Ekintza 3.4.5:</u> Salmenta puntua. Kilometro 0-ko produktuak, oskolak, Orioko arrauneko kamisetak, euskarri bereziak...	2022 (2)
	<u>Ekintza 3.4.6:</u> Produktuak sortu. Bisita gidatuak, bisita teatralizatuak, altxorraren bila...	2022 (1)

JARDUERA LERROAK	EKINTZAK	DENBORA LERROA
3.5 JARDUERA LERROA: TURISMO PERTSONALIZATUA: TURISMO FAMILIARRA, GASTRONOMIKOA, SILVER, KIROLA, KULTURALA. <i>*Turismo profilak eta turismo plan posibleak gaur egungo baliabideekin</i>	<u>Ekintza 3.5.1:</u> Turista xede taldeen identifikazioa eta definizioa.	2021 (1)
	<u>Ekintza 3.5.2:</u> Turista xede taldeentzat plan zehatzen definizioa.	2021 (1)
	<u>Ekintza 3.5.3:</u> Turista xede talde bakoitzari bideratutako komunikazioa.	2022 (1)

TURISMO MOTA BAKOITZARI BIDERATUTAKO PLANAK GAUR EGUNGO BALIABIDEekin

TURISMO FAMILIARRA

Profila: 22 urte arteko seme-alabak dituzten familientzako. Natura, benekotasuna, euskara, xarma, lasaitasuna, nortasuna duen herria, masifikaziotik kanpo egotea bilatzen duten familiei zuzendua.

JARDUERA ESPARRUA:

Euskal Herria eta Donostia deribatzaile nagusi bezala.

PLANA:

- 10:00: Traineruan/piragua/ pad-del surf
- 12:30: Herria ikusi eta kokatu
- 14:00: Bazkaria
- 16:00 Altxorraren bila moduko bat herria hobeto ezagutzeko turismo bulegoan amaitzen dena. Turismo bulegoan aukera guztietaz informatzeko aprobe txatu. Jarduera hau eskaripean antolatuko litzake, maiatzatik-ekainera bitarte.

TURISMO AKTIBOA

Profila: 24-48 urteko lagun taldea.

JARDUERA ESPARRUA: Euskal Herria eta Donostia deribatzaile nagusi bezala.

PLANA:

- 10:00: Traineru edo ontzi batean ibili / Mendi buelta oinez edo bizikletaz
- 12:00: Herria ikusi eta ezagutu bisita motz batekin
- 14:00: Soziedade gastronomiko / jatetxe batean bazkaria (arraina + bertako produktuak)

Profila: 40-65 urteko lagun taldea, bikoteak. Abentura pixkat bilatzen dutenak, dibertigarria, baina esfortzu eta arrisku handirik gabe.

JARDUERA ESPARRUA: Euskal Herria eta Donostia deribatzaile nagusi bezala.

PLANA:

- 10:00: Ontzi batean ibili / Mendi buelta edo errio bazterretik paseoa
- 12:00: Herria ezagutu bisita motz batekin eta zerbait hartuz amaitu
- 14:00: Soziedade gastronomiko batean edo jatetxe batean bazkaria (arraina + bertako produktuak)

TURISMO SILVER

Profila: 60-80 urte bitarteko lagun taldeak, bikoteak.

JARDUERA ESPARRUA: Euskal Herria eta Donostia deribatzaile nagusi bezala.

PLANA:

- 11:00 Orioko bisita gidatua: historia eta istorioak ezagutu
- 13:00 Soziedade gastronomiko batean edo jatetxe batean bazkaria (arraina + bertako produktuak)

TURISMO GASTRONOMIKOA

Profila: 40-70 urte bitarteko lagun taldeak, bikoteak.

JARDUERA ESPARRUA: Euskal Herria eta Donostia deribatzaile nagusi bezala.

PLANA:

- 11:00 Orioko bisita gidatua: historia eta istorioak ezagutu
- 12:00 Elkarte gastronomikoan tailerra
- 14:00 Elkarte gastronomikoak bazkaria (arraina + bertako produktuak)

JARDUERA LERROAK	EKINTZAK	DENBORA LERROA
3.6 JARDUERA LERROA: KANPINA	Ekintza 3.6.1: Igerilekua estaltzearen bideragarritasuna aztertu. Kanpinaren estantzien desestazionalizazioan lagungarri izan daiteke.	2021 (1)
	Ekintza 3.6.2: Kudeaketa eredu definitu. Kanpineko zerbitzuak herritarrek erabiltzeko aukera.	2021 (2)
	Ekintza 3.6.3: Herria eta hondartza bizikleta bidez lotu. Herritarrek nahiz turistek erabiltzeko bizikleta zerbitzu eredu bideragarritasuna aztertu.	2022 (1)
3.7 JARDUERA LERROA: AISIALDIRAKO PRODUKTUAK	Ekintza 3.7.1: Bizikleta ibilbideen mapa sortu. Orio-Saltxipi-Agina, Orio-Itxaspe, Orio-Kukuarri...	2022 (1)
	Ekintza 3.7.2: Herriko historia eta istorioak kontatzeko euskarri berezia sortu. Herriko puntu estrategikoetan Orioko historiez eta istorioez zipriztindutako herria.	2022 (2)
	Ekintza 3.7.3: Herritik barrenako altxorraren bila. Orioko historia eta istorioak ezagutzeko altxorraren bila ibiltaria familiarra.	2022 (1)
	Ekintza 3.7.4: Aliantzak parapente preskriptoreekin. Parapente eskolak, federazioa, aldizkariak...	2022 (1)
	Ekintza 3.7.5: Itsas taxia. Herriko puntu estrategiko ezberdinak ur gainean dabilen itsasontzi bidez lotu. Plaza-Arraunetxe-Mutiozabal-Etxeluze-Hondartza...	2023 (1)
	Ekintza 3.7.6: Itsas eta errio ibilbideen oinezkoen mapa. Erria bazterretik eta itsas gainetik Orioko dauden oinezko ibilbideen mapa.	2022 (2)
	Ekintza 3.7.7: Escape room. Orioko historia, istorio eta pertsonaiei lotutako jardua.	2022 (1)
3.8 JARDUERA LERROA: GASTRONOMIA	Ekintza 3.8.1: Parrilak indartu. Orio-gastronomia-parrilak triangelua indartu eta birdefinitu. Oriok arrain usaina edukitzea behar du. Arrainaren esentziak presente egon behar du; bisiguaz haratago beste garaiko arrainak balioan jarri. Parrilen erabilera sustatu.	2021 (2)
	Ekintza 3.8.2: Herriko pintxo ibilbidea sortu. Ostalaritza establezimendu bakoitzak arrainarekin egindako pintxo bat sortu eta Orioko izen bat jarri.	2022 (1)
	Ekintza 3.8.3: Elkarrekin gastronomikoetan esperientziak. Plater jakinak prestatu, marmitakoa adibidez, pintxo tailerra, herriari bisita eta elkarrekin gastronomikoan bazkaldu.	2022 (1)
	Ekintza 3.8.4: Udaleko tabernen esleipen kontratuen birdefinizioa. Parrila, arraina, paisaia linguistikoa, paisaia bisuala zehaztu.	2021 (1)
	Ekintza 3.8.5: Itsas aste gastronomikoa. Itsasoari lotutako produktuak balioan jarriko dituen astea.	2023 (1)
	Ekintza 3.8.6: Bertako-denboraldiko produktuen erruleta. Arraindegia, harategi edota barazkien bertako-denboraldiko produktuak sustatzeko eta balioan jartzeko euskarri fisikoa.	2023 (1)

JARDUERA LERROAK	EKINTZAK	DENBORA LERROA
3.9 JARDUERA LERROA: MUTIOZABAL	<u>Ekintza 3.9.1: Errelatoa integratu.</u> Orioren posizionamendu eta errelato berria integratuta izan behar ditu proiektuak.	2022
	<u>Ekintza 3.9.2: Kohesioa.</u> Proiektuak kohesioan egon behar du Orioren errelato eta posizionamendu berriarekin.	2022
3.10 JARDUERA LERROA: ETXELUZE	<u>Ekintza 3.10.1: Errelatoa integratu.</u> Orioren posizionamendu eta errelato berria integratuta izan behar ditu proiektuak.	2023
	<u>Ekintza 3.10.2: Kohesioa.</u> Proiektuak kohesioan egon behar du Orioren errelato eta posizionamendu berriarekin.	2023
3.11 JARDUERA LERROA: KOFRADIA	<u>Ekintza 3.11.1: Errelatoa integratu.</u> Orioren posizionamendu eta errelato berria integratuta izan behar ditu proiektuak.	2024
	<u>Ekintza 3.11.2: Kohesioa.</u> Proiektuak kohesioan egon behar du Orioren errelato eta posizionamendu berriarekin.	2024
	<u>Ekintza 3.11.3: Le Garage ardatz duen proiektua.</u> Janari postu desberdinak jarleku eta mahai konpartituekin. Arrainaren eta kulturaren arteko fusioa adin desberdinetara egokituta.	2024
3.12 JARDUERA LERROA: INTERPRETAZIO ZENTROA	<u>Ekintza 3.12.1: Hausnarketa estrategikoa.</u> Gaur egun dagoen proiektuaren base kontzeptuala aztertu. Zer transmititu-saldu behar du azpiegitura honek?	2021 (1)
	<u>Ekintza 3.12.2: Produktu-zerbitzu berriak definitu.</u>	2021 (1)
3.13 JARDUERA LERROA: GOIKO KALE	<u>Ekintza 3.13.1: Ostalaritza establezimenduren bat zabaldu.</u> Goiko kale biziberritu, bizitza sortu bertan.	2023
	<u>Ekintza 3.13.2: Goiko kaleko festak berreskuratu.</u>	2023
3.14 JARDUERA LERROA: ELIZA	<u>Ekintza 3.14.1: Organo eta abesbatza kontzertuak indartu.</u> Musika Hamabostaldia, Jazzaldia... aliantzak.	2023
	<u>Ekintza 3.14.2: Elizara bisitak.</u> Donejakue bidea egiten ari diren erromesak elizara bisitak egiteko aukera, eliza irekita mantenduta.	2023
	<u>Ekintza 3.14.3: 400. urteurrena.</u> 2023an, 400. urteurrenaren harira, ekintza bereziak antolatuta.	2023

JARDUERA LERROAK	EKINTZAK	DENBORA LERROA
3.15 JARDUERA LERROA: PLAZA	<u>Ekintza 3.15.1: Kultura plazara!</u> . Maiztasun jakinez denboran zehar errepikatzen den programa sortu herriko plazan; Kultura plazara!. Herriko eragile/taldeei aukera eman beren ekimenak herriari aurkezteko.	2022 (1)
3.16 JARDUERA LERROA: KULTUR ESKAINTZA	<u>Ekintza 3.16.1: Urteko programa osatu.</u> Orioko errelatoa eta posizionamendu berria ardatz hartuta osatu kultur eskaintza aberatsa.	2021 (1)
3.17 JARDUERA LERROA: AZPIEGITUREN EGOKITZAPENA	<u>Ekintza 3.17.1: Beharren identifikazioa.</u> Aparkalekuak eta herria eta hondartza lotura... aztertu.	2021 (1)
	<u>Ekintza 3.17.2: Hobekuntza plana.</u> Estrategikoak diren azpiegiturak hobetu: aparkalekuak, herria eta hondartza lotzea...	2022 (1)
3.18 JARDUERA LERROA: KIROLA	<u>Ekintza 3.18.1: Kirol proben antolaketa eta bideragarritasuna aztertu.</u> Mendi lasterketa, errepideko lasterketa, triatloia, parapentea...	2022 (1)
	<u>Ekintza 3.18.2: Kirol agenda.</u> Asteburuko kirol agenda argitaratu eta aliantzak sortu tabernari, ostalari, alojamentu, zerbitzu turistikoekin.	2022 (2)
3.19 JARDUERA LERROA: TURISMO MICE	<u>Ekintza 3.19.1: Baliabideak/enpresak identifikatu.</u> Alojamentuak, zerbitzu turistikoak, merkatariak, ostalariak.	2022 (1)
	<u>Ekintzak 3.19.2: Lan taldea sortu.</u>	2022 (1)
	<u>Ekintza 3.19.3: Produktuak sortu.</u>	2022 (1)
	<u>Ekintza 3.19.4: Komertzializazio lana.</u>	2022 (1)
3.20 JARDUERA LERROA: ARRANTZA	<u>Ekintza 3.20.1: Arrantza ontzia.</u> Arrantzaren esentzia mantentzeko moilan bisitariak jasoko dituen arrantza ontzia.	2023 (1)
	<u>Ekintza 3.20.2: Aliantzak arrantzale eskolekin.</u> Arrantzaren mundua herrian sustatzeko.	2023

ORIOREN *esentzia eta xarma*

ERRONKA 4: PAISAIA ETA ESTETIKA BISUALA

Helburua 1: Orio bisualki erakargarri egin.

Helburua 2: Errelatoan azaltzen diren elementuen presentzia herritik.

Azalpena: Orio nortasun handiko herria da, baina identitaterik ez du egun. Bisitariak zein herritarrak arraun-itsas-errio herri bezala identifikatzen gaituzte, baina hori guztiaren esentzia bisuala galdua dago herrian. Hori horrela, herritik barrena gure esentziaren erakusle diren elementuekin egin behar dugu topo, identitate komun hori sortzeko, errelato berriarekin bat etorriko dena. Haratago, gainera, herriko sarrera irteerak ez dira erakargarriak, ez dute herrira sartzeko deia egiten, ez dute herriaren esentzia islatzen. Hori horrela, herriko paisaia bisuala eta estetika landu behar dira eta ikusgai jarri Oriok duen esentzia eta xarma.

JARDUERA LERROAK	EKINTZAK	DENBORA LERROA
4.1 JARDUERA LERROA: ESTETIKA	Ekintza 4.1.1: Hobekuntza plana. Hobetu beharreko paisaia bisuala identifikatu.	2022 (1)
	Ekintza 4.1.2: Irudia/modeloa diseinatu. Errelatoarekin bat egiten duena. Erriorekin harreman zuzena duen elementua.	2021 (2)
4.2 JARDUERA LERROA: PUNTU ESTRATATEGIKOAK	Ekintza 4.2.1: Puntu estrategiko eta beharren identifikazioa.	2021 (2)
	Ekintza 4.2.2: Herritik barrena informazioa jarri.	2022 (1)
	Ekintza 4.2.3: Erakusleihoak. Herriko zerbitzuen erakusleihoetan Orioren esentzia erakutsi.	2022 (1)
4.3 JARDUERA LERROA: SEINALETIKA	Ekintza 4.3.1: Seinaletika ezarri. Herriko puntu ezberdinetan seinaleletika ezarri (bisitariak bideratzeko) erromesentzat bidea seinalatu.	2022 (1)

EREDU berritzailea

ERRONKA 5: TURISMOAREN KUDEAKETA – GOBERNANTZA EREDUA

Helburua 1: Turismoaren kudeaketa – gobernantza eredu berri bat sortu.

Azalpena: Orioko turismoaren kudeaketaren lidertzarik ez dago. Guztiak norabide berean lanean aritzeko ardura norbaitek hartzea beharrezkoa da, gidaria behar du Orioko turismoaren alorrak. Orioko Udalak eredu berritzaile bat martxan jartzeko aukera du. Turismo zerbitzuak pribatua izan behar du? Publikoa? Nahasia?

JARDUERA LERROAK	EKINTZAK	DENBORA LERROA
5.1 JARDUERA LERROA: EGOERAREN MAPA EGIN	<u>Ekintza 5.1.1: Diagnostikoa.</u> Turismoaren kudeaketa-gobernantza ereduaren argazki orokorra.	2022
	<u>Ekintza 5.1.2: Lehiaketa publikoetan gutxieneko batzuk definitu.</u> Orioko Udalak esleitzen dituen turismoarekin lotutako kontratuetan baldintza jakin batzuk ezarri.	2023
5.2 JARDUERA LERROA: EKINTZAILETASUNA	<u>Ekintza 5.2.1: Ekintzaile plana.</u> Oriotarren artean ekintzai-letasuna sustatuko duen ekosistema sortu.	2023

koordinazio SISTEMA

ERRONKA 6: KOHESIOA

Helburua 1: Turismoarekin harremana duten zerbitzuen (ostalaritza, merkataritza, alojamenduak, zerbitzu turistikoak) arteko lankidetzeta eta estrategia bateratua.

Helburua 2: Beste herriekin harremanak sustatu.

Azalpena: Orioko turismoaren alorra ez dago elkar kohesionatuta. Bakoitzak bere aldetik egiten du lan orain artean. Turismoarekin harremana duten zerbitzuak (ostalaritza, merkataritza, alojamenduak, zerbitzu turistikoak) norabide berean eta elkarrekin koordinazioan arituta oparotasuna handiagoa litzake guztientzat; aberastasuna herrian bertan geldituko litzake. Alojamentuak bertako ostalaritza establezimenduetara bideratuz bisitariak, ostalaritza establezimenduak bertako alojamentuetara bideratuz jendea, bertako zerbitzu turistikoetara, bertako arraindegia, harategi, arropa dendetara. Kohesioan aritzeak Orioren ekonomia zirkularra bilakatuko du (fabrika moduko bat sortu daiteke establezimendu guztietan presente egongo dena). Horrez gain, inguruko herriekin harremanak sustatuz hango bisitariak ere erakar daitezke Oriora.

JARDUERA LERROAK	EKINTZAK	DENBORA LERROA
6.1 JARDUERA LERROA: KOORDINAZIO SISTEMA	<u>Ekintza 6.1.1:</u> Turismoarekin harremana duten eragileen identifikazioa.	2021 (1)
	<u>Ekintza 6.1.2:</u> Komunikazio kanala definitu. Barne komunikazioa.	2021 (1)
	<u>Ekintza 6.1.3:</u> Udalaren funtzioak definitu.	2021 (1)
	<u>Ekintza 6.1.4:</u> Mediazio sistema sortu.	2021 (1)
	<u>Ekintza 6.1.5:</u> Inguruko herriekin harremanak sustatu. Urola Kosta, Donostialdea...	2021 (1)

ekonomia

EREDU BERRIA

ERRONKA 7: FINANTZIAKETA

Helburua 1: Orioko Biziberritze Planaren ekintzen errentagarritasuna eta autosostengarritasuna.

Azalpena: Orioko Biziberritze Planean planteatzen diren ekintzak autosostengarriak izan behar dute etorkizunean Orioko Udalarentzat; hori horrela finantziaketa eredu mota ezberdinak aztertu eta aplikatzea izan daiteke formula egokia. Nondik eratorriko zaizkigu etorkizuneko diru sarrerak?

JARDUERA LERROAK	EKINTZAK	DENBORA LERROA
7.1 JARDUERA LERROA: FINANTZIAZIO SISTEMA	<u>Ekintza 7.1.1:</u> Orioko Udalarentzat diru sarrera diren ekintzak abian jarri.	2021-2022-2023
	<u>Ekintza 7.1.2:</u> Zerga bilketa handitzea herriko jarduera ekonomikoaren handitzearen ondorioz.	2023
	<u>Ekintza 7.1.3:</u> Dirulaguntzetara aurkeztu. Estatuko, Europako eta lurraldeko dirulaguntza-programen bigilantzia.	2021-2022-2023

Informazio iturriak



- Dinamiza Asesores (20/04/07), "Coronavirus: el momento de la verdad para los destinos turísticos", webgunetik berreskuratua.
- UNWTO (Munduko Turismo Elkarte) (20/03/24), "Evaluación del impacto del brote de covid-19 en el turismo internacional" webgunetik berreskuratua.
- DELOITTE, (27/03/20) , "Impacto y Escenarios de recuperación en Consumo y Distribución" webgunetik berreskuratua.
- Juanma Mallo (20/04/11), El Diario Vasco, "El Gobierno Vasco dice que hay que plantearse unas vacaciones de verano en entornos más próximos" webgunetik berreskuratua
- Expreso (20/04/01), " Expertos destacan que en el futuro viajar será mejor",webgunetik berreskuratua
- Xabier Martin (20/04/05), Berria, "Turismoaren argazki negargarria", webgunetik berreskuratua
- Sérvulo, J. &Salvatierra, J. (2020/04/12), El País, "Reyes Maroto: "Habrá que guardar la distancia un tiempo, hasta en la playa", webgunetik berreskuratua
- UNWTO (Munduko Turismo Elkarte) (2019), "Panorama del turismo internacional".
- UNWTO (Munduko Turismo Elkarte) (2020), "European Union TourismTrends".
- Scott A. Kulp& Benjamin H. Strauss (2019), Nature Communications, "New elevation data triple estimates of global vulnerability to sea-levelrise and coastalflooding".
- GSTC (Global Sustainable Tourism Council) (2013), "Criterios Globales de Turismo Sostenible para Destinos Turísticos Versión 1.0"
- Siadeco (2018), "Pobrezia, Desberdintasuna eta Gizarte Bazterketa Orion".
- Eusko Jaurlaritza (2017) "Turismo, Merkataritza eta Kontsumo Plan Estrategikoa 2017 – 2020"
- Orioko Ahalduentze Eskola (2019), "Orioko emakumeen beharren diagnosis".
- MURGIBE Berdintasunerako Aholkularitza (2012), "Orioko emakume eta gizonen berdintasunerako I Plana"
- Orioko Udala (2018), "Euskarren erabilera normalizatzeko plana 2018-2022" Urola
- Kostako Udal Elkarte (2017), "Eskualdeko dinamizazio plana".
- Iñobe& Eusko Jaurlaritza (Koord.) "Proyecto Life Integrado Urban Klima 2050".
- BasqueTour (2017), "IBILTUR OCIO 2017-2016, Conocimiento del perfil de los y las turistas que visitan Euskadi por motivaciones de ocio".
- BasqueTour, "Código Ético Turismo Euskadi".
- Beinke, "Plan de Dinamización Turística de Urola Kosta 2015-2017"
- Beinke&Ezcarra y Consultores, "Plan Estratégico de Turismo para la comarca de Urdaibai".
- Beinke, "Estudio de Polos de Innovación Turística para la comarca de Bidasoa".
- Munduko Turismo Erakundea (UWTO):
- Euskal Estatistika Erakundea (EUSTAT):
- Euskal Turismo Agentzia (BasqueTour):
- Kostaldea:

Eranskinak

1 ERANSKINA: ORIORA IRISTEKO GARRAIOAK


NOLA IRITSI ORIORA AUTO PRIBATUAN

Orio Bilbo eta Donostiarekin konektatzen dituen AP-8 autobideak Orioko herria zeharkatzen du. Hori dela eta, errepide hau erabilia oso erraza da Oriora iritea auto pribatuan.



Irudia 29: AP-8 autobidea

Beste aukera bat N-634 errepidea erabiltzea da. Donostiatik Compostelako Donejakuera doan errepide nazionala da N-634a eta hainbat tartetan A-8 autobidearen alboan doa. Bide honek kostaldeko herri guztiak zeharkatzen ditu.



Irudia 30: N-634 errepidea

NOLA IRITSI



AP-8 Zumaia eta Zarautz: sarrerak eta irteerak zuzenak norabide guztietan.
AP-8 Orio: sarrera eta irteera Donostia norabidean bakarrik.

Errepideak:

- N-634 Zumaia-Getaria-Zarautz-Orio
- GI-3710 Orio-Aia
- GI-2631 Orio gaina-Aia
- GI-2633 Zarautz-Iraeta

--> Irudia 31: Oriora Autoz Iritsi (kostaldea.eu)

NOLA IRITSI ORIORA TRENEZ

Trenez Oriora iristeko Bilbo eta Donostia konektatzen dituen Euskotrenen E1 linea erabili daiteke. Donostian tren hau hartuz gero 23 minutu behar dira Oriora iristeko, Zarautzen hartzen bada 8 minutu eta Zumaian hartuta 15. Tren honek Deba, Eibar edota Elgoibar bezalako herrietatik Oriora gerturatzeko aukera eskaintzen du, baita Bizkaiako hainbat herrietatik ere, Berriz eta Bilbo, esaterako. Astegunetan Euskotrenek 30 minutuko maiztasunarekin eskaintzen du zerbitzua eta asteburuetan, aldiz, orduro.

NOLA IRITSI

TRENEZ

EUSKOTREN
 ~ Bilbao - Donostia - Donostia - Bilbo
 T. 944 333 333
 www.euskotren.es
 Geltokiak:
 Orio/Aia - San Pelaio (Zarautz) - Zarautz - Zumaia

Irudia 32: Oriora trenez iritsi (kostaldea.eu)




Irudia 33: Euskotrenen E1 linea

NOLA IRITSI ORIORA AUTOBUSEZ

Oriora autobusez iristeko Donostia Zumaiarekin elkartzen dituen autobusak erabili daitezke, UK09 (Zumaia – Donostia) eta UK11 (Zumaia-Donostia Ospitaleak) autobusak. Autobus hauek erabiliz gero, 35 minutu inguru behar dira Donostiatik Oriora iristeko. Astegunetan Donostiatik Oriora eta Oriotik Donostiara 20-30 minutuko maiztasunarekin ateratzen da autobus bat gutxi-gorabehera, jaiegunetan berriz orduro.

Urola Kostako beste herrietatik Oriora joateko jatorriko herriaren arabera autobus linea bat edo beste bat erabiliko daiteke. Oriora Zumaia, Getaria, Aia edota Usurbiletik etortzeko UK autobus linea erabili behar da. UK09 eta UK11 lineari dagokienez, Zarautzik asteen zehar 15 minuturo ateratzen dira autobusak, Getaria eta Zumaiatik 20-30 minuturo. Hala ere, kontuan izan behar da UK lineako autobusak ez direla beti Zumaia eta Getariatik pasatzen, edota Orion gelditzen eta ordutegiaren arabera autobus berdinak herri gehiago edo gutxiago zeharkatzen ditu. Ondorioz, gomendagarria da interneten zein geltokietan autobusen ordutegia kontsultatzea.

UK09 eta UK11 autobusez gain, Zarautz, Aia eta Orio konektatzen dituen autobus linea bat dago, UK08. Autobus honen ordutegia berezia da eta ordutegia kontsultatu daiteke interneten edo autobus geltokietan.



--> Irudia34: UK autobuslineak eta geltokiak (Lurraldebus)

NOLA IRITSI

AUTOBUSEZ

LURRALDEBUS

- > Zumaia - Getaria - Zarautz - Orio - Donostia UK09, UK10, UK11, UK49G
- > Zarautz - Aia - Orio - Orio - Aia - Zarautz UK8

T. 900 300 340

www.lurraldebus.eus

- > Zarautz - Aizarnazabal - Zestoa - Azpeltia - Azkoitia **UK3** (Orduro)
- > Zumaia - Zumarraga - Zumarraga - Zumaia **UK6** (Orduro)
- > Zumaia - Azkoitia **UK46G**
- > Aizarnazabal - Zumaia - Zestoa **UK07**

T. 943 851 159

www.laguiipuzcoana.eus

- > Zarautz - Bilbo (DO01) / Zarautz - Gasteiz (DO02)
- > Zarautz - Loiu Aireportua (DO50B) / Zarautz - Arrasate (DG07)

T. 900 121 400

www.pesa.net

ALSA

Zarautz - Bilbo / Bilbo - Zarautz

T. 902 422 242

www.alsa.es

Zerbitzu bat eguneko

BURUNDESA

Zarautz - Iruñea / Iruñea - Zarautz (Udan)

www.autobuseslaunion.com

BIDAI ON

Zarauzko herri barruko autobusa. Egunero.

www.zarauzkohiribusa.org

Astelehenetik igandera

Irudia 35: Oriora Autobusez iritsi (kostaldea.eu)

NOLA IRITSI ORIORA HEGAZKINEZ

Euskal Autonomia Erkidegoko hiriburu guztiek beraien aireportua dute: Bilbok Loiu, Donostiak Hondarribiako aireportua eta Gasteizek Foronda. Nabarmendu behar da Biarritzek ere aireportua duela.

Donostia eta Gasteizko aireportuetatik Oriora joateko errazena Donostiara joan eta bertatik Oriora bidaiatzea garraio publikoa erabiliz (Euskotren edo autobusa).

Gainontzeko euskal aireportuekin alderatuta, Loiu da handiena eta turista gehien jasotzen dituen. Loiu-ko aireportutik Donostiara orduo autobus bat ateratzen da, geltoki bakarra du bidean, Zarautz. Oriora joateko Zarautzen jaitsi eta bertan Oriora joateko autobusa edo trena hartzea litzateke egokiena (UK linea edo Euskotren).

TAXIA ORION

Orion bi taxi gidari daude. Taxi geltokia plazaren alboan du kokalekua. Erreferentzia moduan, Donostiatik Oriora taxiz bidaiatzearen prezioa 30 € da (17km).

NOLA IRITSI



HEGAZKINEZ

<p>DONOSTIAKO AIREPORTUA (EAS) T. 943 668 500 AENA T. 902 404 704 aeropuertosansebastian@aena.es www.aena.es/sansebastian</p>	<p>GASTEIZKO AIREPORTUA (VIT) AENA T. 902 404 704 vitceops@aena.es www.aena.es/vitoria</p>
<p>BILBOKO NAZIOARTEKO AIREPORTUA (BIO) T. 944 869 664 - 944 869 663 AENA T. 902 404 704 infobio@aena.es www.aena.es/bilbao</p>	<p>MIARRITZKO AIREPORTUA (BIQ) T. 0033 (0)559 438 383 informations@biarritz.aeroport.fr www.biarritz.aeroport.fr/es/</p>


Irudia 36: Oriora hegazkinez iritsi
(kostaldea.eu)

TXUTXU TRENA ORION

Udan, ekainetik irailera, Txu-Txu trenaren bitartez lotzen dituzte herria, Anibarko portuko auzoa eta hondartza oriotarrek. Txartelak Orioko kanpinean, turismo bulegoan eta zaharren babeslekuan eskuratu daitezke.



Abaromendi 42, behea
20810 Orio
943 218 899

www.kulturatelier.eus



Zubiberri Bidea, 29, 1. solairua - 3 bulegoa,
(Ondarreta Eraikina, Zuatzu)
20018 Donostia-San Sebastián
943 225 808

www.iragest.com

